



ITXARO IRAETA





*Ondo pasau
sansebastianak!*





Iritzia
Mailo Oiarzabal

Kazetaria

Azpeitiarrok, bejondeizuela

Azaroa. Laneko agenda hartu. Hitzaldiren bat, ekitaldiren bat, aurkezpenen bat, Euskaraldiko lanak, eta, a, bai, sansebastianetako bilera. Sansebastianak. Gabonetan pentsatzen ere hasi aurretik, sansebastianak. Urruti daudela? Garaiz gabiltzala? Bai, zera. Egitekoen zerrenda luze eta potoloa gainerako egitekoen zerrenda mardulari gehitu, eta has gaitezen, zezenak harrapatu baino lehen. Egitekoen zerrenda bezain mardul, gehigarri hau, besteak beste. 48 orrialde huts. Beteko ditugu, beteko ditugu...

Urtarrilaren 19a eta 20a. Bi egun batean edo egun bat bitan, oso ordu gutxiko eten-atsedenarekin. Herria festan, gu lanean. Urteko lanegunik luzeenetakoa, ezorduetako lan asko, kalean zein bulegoan, festan dabiltzaneren euforiak ziprztindutako ordu luzeak. Zientoka mahaiaren bueltan afaltzen, festarako prantatzen; teklatuak eta koadernoak baztertu eta laneko mahaiaren

aurrean eserita ogitartekoa guk, eskoletako danborradetan eguneko lehen argazki zientokada atera ondoren kameren bateriak kargatzen utzita. Ateri bada, gaitzerdi. Euria bada, morala hankapean. Ziklogenesiren bati bisita egitea otu bazaio, mezuak eta deiak batera eta bestera: zertan gara, orduan? Gauza bakarra argi: mundu mailako larrialdi egoerarik ezean, bertanbeherarik ez da existitzen hiztegian Azpeitiaz eta festaz, Azpeitiaz eta danborradaz, ari garenean. Eta, hala ere...

22:00ak gainean. Jo dezatela txistua eta has dadila *Hau dek hau*, bestela... Plazan zain, udaletxe aurrean, begiak Goiko kalean jarrita, antzera dauden ikusleei ahalik eta traba gutxien egiteko moduko txoko bat aukeratuta. Atzera eta aurrera kamerari eragiten hasitakoan lanak emango ditu traba ez egitearenak, baina sinets ezazue, lana da guretzat, ez dugu zuek izorratzearren egiten, benetan; eta barkatu eragozpenak, alde



aurretik. Begirasun ez oso lagunkorren bat edo beste sumatuko dugu aurtien ere, «aizu, hemen gu gaude, e?» botatzen ez badigute. Eta, hala ere...

Aurtien ere San Sebastian eguneko goizaldeko ordu txikietan, begiak frijituta eta burua onenak emanda, oraindik argazki bildumekin borrokan ibiliko naizela jakin arren. Ordu gutxi lo egin eta beste lanegun luze bat etorriko dela jakin arren. Umeen danborradaren azken txanpan plazan nekatuta-aspertuta ikusiko ditudan gaztetxoekin errukituko naizen arren. Banderadunaren eta kantineraren rolak genero eta estereotipo jakin batzuei hain lotuta egoteari inoiz utziko ote dion neure buruari galdetu arren, eskoletako jolastokietan hasita dagoen aldaketak kalea

«Sinets ezazue, lana da guretzat, ez dugu zuek izorratzearren egiten, benetan; eta barkatu eragozpenak»

«Lanaren komeriak eta mixeriak ahaztu eta dena egiten zaizkit udaletxetik plazako hermosureari so»

inoiz zapalduko ote duen enegarrenez pentsatu arren.

Arren guztien arren, eta hala ere, izugarri gustatzen zait danborrada. Ez didate ba adarra batere jotzen lankideek, urrestildar bati danborradako doinuak hainbeste gustatzea ez dela normala eta. Ba normala baino gehiago gustatzen zaizkit

niri danborradako doinuak. Eta lanaren komeriak eta mixeriak ahaztu eta dena egiten zaizkit San Sebastian bezperan udaletxeko balkoitik plazako hermosureari so; pikutara ilara perfektuak, *Mandioko* polkarekin edo *Idiarenarekin* sortzen den anabasak ez du parekorik une horretan.

Aspaldi esan nuen lehen aldiz, erdi txantxetan, erdi pasatxo serio, azpeitiarroi zerbait ondo egiten duzuela aitortzekotan, zerbait hori danborrada dela. Gaur, iritzi hori mantentzen dudala diot. Ez dituzue inoiz astinduko atabalak donostiarren elegantziarekin, belarriko mina eragiteraino desafinatu eta konpasa galduko duzue, baina mundiala da egun horretan sortzen duzuen giroa. Bandera jaitsierarena hurrengo baterako uztea hobe.

Azpeitiarrok, bejondeizuela.

Softekin
INFORMATIKA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Iberotarren Plaza 8 behea 20730 AZPEITIA - GIPUZKOA • 943-81 51 51 • softekin@softekin.com

www.softekin.com



Mikel Odriozola Azpeitiko Udaleko Festa batzordeburua eta Joxe Perez Xebilla, Lurdes Alkorta eta Harkaitz Elorza *Elortxa* danborradaren batzordea osatzeko prozesuan parte hartu duten hiru kide. MAILO OIARZABAI



Danborradaz gozatzeko, hik lan eta hik jai

Helduen danborradaren antolaketa errazteko batzordea eratu dute. Txandaka, talde guztiek probatuko dituzte festaren atzeko lanak.

Herritarren parte hartze zuzen eta aktiboa ezinbestekoa duen urteko ekitaldirik jendetsuena izan ohi da, Azpeitian, San Sebastian bezperako helduen danborrada. 2020an, ospatu ahal izan zen azken aldian, hiru talde berri batu ziren festara –Ilunpe, Inpernue eta Izarraitzepe–, eta horiekin, 30 taldera iritsi da danborrada. 30 talde, 1.500 bat pertsona bi orduz kalez kale; 22:00etan abiatu eta gauerdiko kanpaiak jotzen hasteko denak plaza barruan beren tokietan egon behar, bandera igozteko.

Mikel Odriozola Azpeitiko Udaleko Festa batzordeburuak dioen bezala, «dimentsio handia» hartu duen festa da, izan ere, urtarrilaren 19ko danborrada. 2000ko hamarkadaren hasieran hamazazpi taldek osatzen zuten festa, eta hogei urteren buruan, ia bikoiztu egin da parte hartzaileen kopurua. Hazkunde horrek aberastu egin du danborrada, zantzarik gabe, baina, era berean, lantsuago bihurtu du antolaketa, zaildu egin du festaz gozatzera iristen diren gehienek ikusten ez duten «atzeko lana». Horrega-

tik, danborrada antolatzen laguntzeko edota hobeto antolatu ahal izateko, batzorde berria sortu dute.

Orain arte, hurrengo urteko danborradak antolatzeke bi bilerara nagusitan elkartzen ziren udaleko eta danborradako talde guztietako ordezkariak, azaroan eta abenduan. Sansebastianak ospatu ondoren, berriro elkartzen ziren denak, danborradaren balorazioa egiteko eta aurrera begira zer neurri edo erabaki hartu proposatzeko; baina hurrengo udazkenera arte, besterik ez. «Prozedura horrek nekeza egiten du askotan antolaketa, eta horregatik planteatu genuen 2020koaren aurretik danborradaren inguruko batzordea osatzeko beharra edo nahia. Ikusten genuen, alde batetik, danborradak dimentsio handia hartua zuela, 30 taldek parte hartzen dutela eta urtean pare bat bilera egiten direla hori antolatzeke. Bilera horietara joaten diren taldeetako ordezkari askok lehen urtea izaten dute, edota beren iritzia ematea kostatu egiten zaie», kontatu du Odriozolak, batzorde berria eratzeke arrazoiak azaltzerakoan.

2020ko danborradaren ondorengo balorazio bileran erabaki zuten lagun talde bat elkartzen

hastea batzordea martxan jartzeke helburuarekin, «sukaldeko lana egiteko eta batzorde horrek nola funtzionatu beharko zukeen eta abar lantzen hasteko». Boluntario talde bat aritu da, Udalarekin batera, batzordea eratzeke lehen urrats horiek egiten, lehenetik ere danborradako zereginetan era batera edo bestera laguntzen ibilitako lagunak. Horientzat esker oneko hitzak izan ditu Festa batzordeburuak: «Egia esan, orain arte ez da batzorde ofizialik egon, baina egon da kuadrillatxo bat, lantalde bat, bai lehengo Festa zinegotziari, bai niri asko lagundu diguna. Niri asko lagundu didate danborrada barrutik ezagutzen, historikoki zer erabaki eta zergatik hartu diren azaldu didate, besteak beste, eta asko eskertu beharrean nago horiei».

Odriozolak azaldu duenez, 2020ko uda ondoren hasi ziren elkartzen. COVID-19aren pandemia eta horrekin etorri ziren neurriak tarteko, helduen danborradarik ez da egin azken bi urteetan, baina danborradaren inguruko kontuak jorratzeko elkartzen jarraitu dute; batzordeari forma emateko sortutako taldea hainbatetan elkartu izan da, eta talde guztietako ordezkariak, berriaz, urtean behin.



2020ko San Sebastian bezperako danborrada Azpeitiko plazan.

Batzordeari dagokionez, hasierako taldeari jendea batzen joan zaio, «ateak zabalik» izan dituzte. 2020ko uda ondoren hasi ziren elkartzen, eta bi urte pasako prozesuaren ondoren, joan zen abenduan danborradako talde guztietako ordezkariekin egindako bi-

leran onartuta gelditu zen danborradaren batzordearen sorrerako akta. «Beraz, esan genezake martxan hasita gaudela», dio Odriozolak.

Ardura partekatua

2023ko sansebastianetan orain-

dik ez da antzemango batzorde berriaren eskua, baina aipatutako aktan jasota dago batzordeak nola funtzionatuko duen. Funtsean, jarraipen batzordea izango da helduen danborradakoa; erabakigunea, orain arte bezala, talde guztien ordezkarien batzarrak

izango dira. «Bileren aurretik, danbor taldeekin hitz egingo du batzordeak, zeraldaketa egin daitezkeen, zer hobetu daitezkeen jaso eta landuko du, eta lanketa hori gauzatu eramango du bilera orokorretara. Batzordeak, beraz, sortzen diren gaiak eta ekar-

penak landu eta proposatuko ditu, besterik ez». Transmisio lana bermatzeko, bidean informazioz ez galtzeko eta danborradako talde guztien parte hartzea sustatzeko, bi urtez behin berrituko dute batzordea, baina ez osorik; eta txandaka, talde guztie-



Ostalaritzarako hornigaiak

Ondo pasau sansebastianak!



«Batzordeak sortzen diren gaiak eta ekarpenak landu eta proposatuko ditu, besterik ez»

«Herri bezala festa hau ospatzen jarraitu nahi badugu, laguntza behar dugula azaldu nahi dugu»

«Egiten hasi garen urte osoko lanketa ez zen egiten orain arte, eta uste dut oso aberasgarria dela»

«Horrenbeste pertsona elkartzen dituen festak ezin du izan 'jantzi, irten eta banoa' bakarrik; hor lanketa handia dago»

tako ordezkariak pasatuko dira batzordetik.

Arkaitz Elorza Elortxa, Lurdes Alkorta eta Joxe Perez Xebilla dira danborradaren batzordea eratzeko prozesuan parte hartu dutenetako hiru. Itsasiko taldearen zuzendaria da Elortxa, baina argi utzi du borondatez ari dela batzordean, ez inoren ordezkari. Argi du, era berean, kanpotik eta sarri barrutik ere ikusten ez den lan asko eskatzen dituela festak: «Danborradan dudana dela eta, ikusten ditut barruko zenbait gauza, Mikel [Odriozola] eta lantaldea nola ibiltzen diren, eta sufritu egiten dut askotan. Danborra jotzen ari denak normalean ez du hori ikusten, festan eta festaz gozatzen ibiltzen da. Guk, berriz, orduak kontrolatu behar izaten ditugu, antolatzaileen tentsioa sumatzen dugu, inoiz errietaren bat edo beste entzun ere bai... Horiek denak ulertzen ditut nik, baina ikusten dut atzekoek eta aurrekoek ez dutela horrela bizi; eta ulertzen dut hori ere, agian konturatu ere ez dira egiten». Urte batean egon diren hutsak hurrengorako konpontzea dirudien bezain sinplea ere ez da, Elortxaren esanetan. «Zuzendariok eta antolakuntzako taldeak iritziak eta iradokizunak sarri partekatzen ditugu, doikuntzak non eta nola egin daitezkeen komentatzen dugu elkarrekin. Baina unean partekatzen ditugun kontu horiek urtean zehar ez ba-

ditugu lantzen, danborrada bukatu eta hurrengo urtera arte, ezer ez».

Hain juxtu ere, horrelakoak sailhesteko «tresna eraginkorra» izan daitekeela sinestuta erabaki zuten batzordean parte hartzea Landeta-Egizalekoek, eta talde hori ordezkatzu sartu zen batzordean Alkorta. «Urtean zehar gauza batzuk aipatzen dira, baina ez zaie jarraipenik egiten», dio, Elortxak esandakoak berretsiz. «Gure kasuan, behintzat, urte batetik bestera aldatu egiten da danborrada taldeko komisia; datorren urtean beste talde bat sartuko da komisiara, eta guk aurten aipatutako kontuak hai-zeak eramango lituzke. Horregatik iruditzen zait interesgarria batzordearen tresna», gaineratu du Landetakoak.

Xebilla Elortxaren multzo berean sartzen da; danborradaren bileretara Ardozaleak taldearen izenean joaten hasi, eta boluntario lanetan gero eta gehiago inplikatzeko joan zen. «Orain egiten hasi garen urte osoko lanketa ez zen egiten orain arte, eta uste dut oso aberasgarria dela. Azkenean, herriaren festa bat da danborrada, zinegotzi bati berari bakarrik utzi ezin zaiona. Denon artean landu beharreko zerbait da, udalari dagokion babesa emanda», dio Xebillak, hiru batzordekideak bat datozen ideia mahai gainean jarritz. «Herri bezala festa hau ospatzen jarraitu nahi badugu, laguntza behar dugula azaldu nahi dugu, alde guztietatik. Izan ere, gurea da festa, eta askotan esaten eta entzuten dugu hori; ba, hain zuzen ere, festa gurea bada, geuri dagokigu lan egitea ere», gaineratu du Elortxak, batzordearen oinarrian dagoen funtsezko ideia borobiltzeko. Danborrada beti bezala eta hirurei gustatzen zaien gisara ospatzeko, «denok batera», aurretik, bitartean eta ondoren lana egin beharra dagoela ulertzen du Alkorta ere: «Horrenbeste pertsona elkartzen dituen festa batek ezin du izan 'jantzi, irten eta banoa' bakarrik; hor lanketa handia dago».

Gogotsu eta eguna iristeko zain daude danborradaren batzordeko sorrerako kideak zein Festa batzordeburua, sansebastianez gozatzeko desiatzen, eta aurrera begira batzordearen lanak fruituak emateko zain.



Iritzia
Mikel Odriozola

Udaleko Festa batzordeburua

Aurten bai!

Aurten bai!, askotan eta gauza askotarako erabilitako leloa. Bi urteko etenaren ostean, San Sebastian festak ospatzeko moduan gara aurten, eta pozik, oso pozik nago. Pandemiaren ondorioz, azken bi urteetako San Sebastian festak bertan behera utzi behar izan genituen, eta hori ez zen batere erraza izan niretzat ere, Festa batzordeburua eta festazale bezala. Helduen eta haurren danborradetan parte hartzen duten taldeak eskertu beharrean nago, erabakia hartzerakoan izan zuten jarreragatik eta konpromisoagatik. Dena den, joan zen urtean, denon artean, haurren danborrada ospatu ahal izan genuen martxoaren 13an. Neurrik gabe, musurrik gabe eta haur haien poza zein irribarreak ikusiz disfrutatu ahal izan genuen, bai beraiek, bai guk.

Ardozaleak taldeko kideak aurten 50. aldiz aterako dira danborradan. Kuadrilla hura, lagun haiek, behinola danbor talde bat osatzeko ideia izan zutenak eta herriko festan parte hartzeko hautua egin zutenak. Zenbat talde diren egun parte hartzaileenetako den festako danborrada osatzen dutenak: ez dezala etenik izan, eta izan dezala edonork danborradan parte hartzeko aukera.

Helduen danborrada prestatzen hasita gaude. Hasiak gara bilerak egiten, hasiak gara

entseguekin, hasiak gara urduritzen (aupa Urko!), baita festa aurreko afariez eta lagun giroaz gozatzen ere. Eta zeinen garrantzitsua den giro hori, zenbat eman duen eta emango duen. Zeinen beharrezkoa den festa batzordeburu berri batzentsat horrelako kuadrilla izatea, danborrada barrutik ezagutzeko eta babesa sentitzeko. Eskerrik asko, eta bejondeizuela.

Hasi gara bidea egiten, martxan da batzordea. «Hau da gure danborradie». Bai gurea, herriarena. Beraz, izan gaitezen parte aktibo, festan eta antolaketan. Festa batzordeburua aldatuko da, udal ordezkariak ere bai, baina danborradak hor jarraituko du beti.

Napoleon trajeari barrenak hartzen edota zapata beltzak probatzen, danborrak armairutik ateratzen edota karroza prestatzen. Aiton-amonak, gurasoak, irakasleak, boluntarioak. Zenbat maitasun dagoen haurren danborradan, zenbat mimatzen den eta zeinen ederra den. Zer garrantzitsua Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegaraireren, Azpeitiko Ikastola Ikasberriren, Iraurgi Ikastetxearen, Juan Antxieta musika eskolaren eta Itsasi kultur taldearen lana. Zenbat inplikazio eta zenbat maitasun, eta zer beharrezko tresna haurren danborradaren antolaketan. Zorionak, zuei!

Azpeitiko Udal Musika Banda,

«Kalean edo balkoietan desfilea ikusten egoten zaretenok ere egiten duzue Azpeitiko danborrada»

«Eskerrak eman nahi dizkiet era batera edo bestera herritarrok festaz gozatzeko lan egiten duten guztiei»

zeinen pieza garrantzitsua danborradan, eta nola ez, herriko festetan. Askotan lo gutxi eginda, nekatuta, baina beti giro onean; nekaezinak zarete!

Eta ez dezagun ahazt: Azpeitiko danborrada ez dute danbor taldeek bakarrik egiten. Azpeitiko danborrada kale izkinitan edota balkoietan desfilea ikusten egoten zaretenok ere egiten duzue, nola ez.

Bi sokak ezkondu, lepokoari korapiloa eginda eta auskalo zenbat urte dituen makila denak otarrean prest dituzte urteko lehen irteera egiteko. Lepokoa, gerrikoa... Atera aurreko tripetako kilima haiek, zer oroitzapen. Zorte on, mutilak. Zeren poteoan ikusiko gara, luza!

Eskerrak eman nahi dizkiet antolaketan aritzen diren boluntarioei, udal teknikariei eta brigadako langileei, udaltzainei, soinu teknikariei, eta era batera edo bestera herritarrok festaz gozatzeko lan egiten duten guztiei.

Gozatu sansebastianak!



‘Batasuna’ kantuaren doinuak, lehenbizikoz

Pantxo eta Peioren abestia joko dute San Sebastian bezperako eta bandera jaitsierako danborradetan. Plazako azken doinua izango da.

Danborradak eta Pantxo eta Peio izatez loturarik ez badute ere, aurtengo San Sebastian jailetako berrikuntza nagusia izango da Ipar Euskal Herriko bikotearen abesti bat: *Batasuna*.

San Sebastian bezperako eta banderaren jaitsierako danborradetan joko dute abestia; sansebastianetan plazan entzungo den azken kanta izango da. Baina nondik sortu da kantu hori danborradan txertatzeko ideia? Mikel Odriozola Festa zinegotziak aurreratu duenez, aspaldi sortu zen ideia, sansebastianen harira egiten diren bileren bueltan. «Bileren osteko afarietan edo poteoetan, azkenean, lagunartea sortzen da, eta asko hitz egiten dugu danborradaz. Donostiako danborrada ere izan ohi dugu hizpide, eta askotan aipatu izan dugu zeinen ederra izaten den Konstituzio plazan kanta herrikoiak jotzen dituzten unea. Elkarrizketa horietan, beti atera izan da *Batasuna* kanta Azpeitian entzutea polita izango litzatekeela», esan du.

Gaia, ordea, inoiz ez zen mahai gainean jarri bilera ofizialetan, 2021. urtera arte. «Pandemiaren ondoren, danborradaren prestaketak hasi zirenean, *Batasuna* abestia jotzeko proposamena egin zen berriro. Danborradako

taldeek ontzat eman zuten proposamena, eta aurrera egitea erabaki zen. Tamalez, iaz ez zen danborradarik izan, eta, beraz, aurtengo jotzea erabaki da», adierazi du zinegotziak.

Erabakia hartuta, abestia danborrentzat eta barrikentzat prestatzeko eskatu zioten Unai Frantsesena Udal Musika Bandaren zuzendariari. «Juan Jose Arakistain *Pino* zenak nahiko garbi zuen nola bereizi behar ziren danborrak eta barrikak; askotan azaldu

Aspaldi sortu zen ‘Batasuna’ jotzeko ideia, sansebastianen harira egiten diren bileren bueltan

Helduen danborradako 30 taldeetako zuzendariak ez dute entsegu berezirik egingo abesti berria ikasteko

zuen. Zortez, gogoratzen nuen hark azalduko, eta horren gainean egin nituen abestiaren prestatetak. Lehenbiziko ereduak zertxobait zaila iruditu zitzaion erakutsi nien taldekideei, eta, beraz, errazten saiatu nintzen ondoren», azaldu du Frantsesena.

Helduen danborradako 30 taldeetako zuzendariak ez dute entsegu berezirik egingo abesti berria ikasteko. «Danborrak nahiz barrikak nola jo behar diren erakusten duen bideoa zabaldu ge-

nuen, eta hortik erraz ikas daiteke. Gainera, ez da abesti zaila», erantsi du bandako zuzendariak.

Hori eginda, moldaketak gauzatzea egokitu zitzaion Frantsesinari, abestia Udal Musika Bandak jo ahal izateko. «Bandako instrumentu bakoitzak zer jo behar duen esatea da moldaketa egitea. Gabonetako oporren bueltan hasi ginen abestia prestatzen eta entseatzen, eta musika banda prest dago abestia urtarrilaren 19an jotzeko», adierazi du.

Bi egun luze aurretik

Herritarren artean ezaguna da musika bandaren eta festen arteko lotura, baina horien arteko harremana are gehiago estutzen da sansebastianetan. «Lan asko» egin behar izaten dute bandako kideek festetan; izan ere, bezperako danborradan berandu amaitzen dituzte egitekoak, eta hurrengo goizean goiz berriro martxan izaten dira. «Ezin dugu gehiegi luzatu gaueko parranda, goiza berehala iristen da eta».

Frantsesenak asteak daramatza sansebastianak prestatzen, kanten moldaketez gain, beste hainbat arlo zuzendu behar baititu: «Gabonetan hasten naiz banda gaztearekin – San Sebastian egunean irteten dira – lanean, umeen danborradan aterako diren zuzendariekin saio bereziak egin genituen Gabonetan, entsegu orokorrak ere baditugu...».



Udal Musika Bandako kide bat, danborradaren entsegu batean, Izarraitzen.



Zeramikaren boutique

DECO-RAMIK

boutique de la cerámica



Loiolako Inazio Hiribidea, 2
20730 Azpeitia
infodecoramik@gmail.com
943-814822
www.decoramik.com

ondo pasau sansebastianak!



Kantuen zerrenda

- 1.- **SAN SEBASTIAN MARTXA** (Egilea: Raimundo Sarriegi - Moldaketak: Jose Luis Franzesena)
- 2.- **SOREASUKO SEBASTIAN** (Egilea: Jose Luis Franzesena)
- 3.- **HAU DEK HAU** (Egilea: Jose Azarola - Moldaketak: Jose Luis Franzesena)
- 4.- **DIANA** (Egilea: Raimundo Sarriegi - Moldaketak: Jose Luis Franzesena)
- 5.- **TATIAGO** (Egilea: Raimundo Sarriegi - Moldaketak: Jose Luis Franzesena)
- 6.- **MANDIOKO POLKA** (Egilea: Jose Luis Franzesena)
- 7.- **IDIARENA** (Egilea: Raimundo Sarriegi - Moldaketak: Jose Luis Franzesena)

- 8.- **AGURRA** (Egilea: Jose Luis Franzesena)
- 9.- **SAN SEBASTIAN DIANA** (Egilea: Jose Ignacio Aldalur)
- 10.- **TXOKOLO DIANA TXIKIA** (Egilea: Jose Mari Gurrutxaga Txokolo - Moldaketak: Jose Luis Franzesena)
- 11.- **GOIZEKO IZARRA** (Egilea: Jose Mari Gurrutxaga Txokolo - Moldaketak: Jose Mari Altuna)
- 12.- **BATASUNA** (Egilea: Pantxoa eta Peio - Moldaketak: Unai Frantsesena)



2020ko helduen danborradako entsegu bateko irudia. UZTARRIA

ebizii

ebidentzia zientifikoetan oinarritutako ikaskuntza

www.iraurgi.eus
943 810 210

Ondo pasau
Sansebastianak!



**Iritzia**

Mane Garcia

Sanjuandegi taldeko zuzendaria

Urteko jai ederrena

Danborradarena beti izan da urte osoko egunik politenetakoa. Gogoan dut danborrada ikustera irteten nintzela eta inbidia handia sentitzen nuela, ezin bainuen ez hurrekin, ez nagusiekin parte hartu.

Taldea osatzeko aukera izan genuenean, poz handia hartu nuen; txikitako ametsa egia bihurtuko zela jakitea azaldu ezin den zerbait izan zen. Batzordeak erabaki zuen nik izan behar nuela zuzendaria, baina hasieran ez ninduen konbentzitzen proposamenak, horrek erantzukizun handia zekarrelako berarekin, eta,

gainera, danborra jo nahi nuelako nik. Dena den, batzordea oso astuna izan zen, eta atzera egin eta onartu egin nuen proposamena.

Egun hartatik aurrera, urte osoa eman nuen zuzendari izateko ikasten. Udal Musika Bandako zuzendariarengana joaten nintzen ez nekizkien notei buruz galdetzeraz, eta entsegu asko eginez, abesti guztiak ikasi nituen. Lana eginda, dena lortzen da.

Hala ere, jendeak oraindik galdetzen dit hainbeste urteren ondoren zergatik jartzen naizen urduri. Egia esan, dena ondo ateratzea eta iskanbilarik eta arazorik ez egotea nahi izaten dut. Taldeak gozatu egin behar du danborradaren egunean; niretzat urteko jai ederrena da.

Behin Gabonak amaitzen direnean, urduri jartzen hasten naiz, entseguetan nahiz egun handian pentsatuta. Danborradaren eguna lasai samar pasatzen dut, baina afaltzeko ordua iristen denean, urduri jartzen hasten naiz: ia ez dut afaltzen, izaten dudantentsioarekin ez zaidalako janaria sartzen, eta nahiago izaten dut gorputzez arin atera, makila erraz mugitu ahal izateko.

Bukatzeko, egun ona pasatzea opa dizuet guztioi; goza dezazuela eta festa handia izan dadila danborrada.

Agur bat!

«Taldeak gozatu egin behar du danborradaren egunean; niretzat urteko jai ederrena da»



Loiolatxo taldeko kideak San Sebastian bezperako danborradan.

Azpeitiarrak atabalak astintzeko prest

Bi urteko etenaldiaren ondoren, 1.500 herritar baino gehiago elkartuko ditu San Sebastian bezperako helduen danborradak.

San Sebastianak iristear dira, eta dena prest dago herrian urteko aurreneko festa handia behar bezala ospatzeko. Festa giroa eta danborhotsak nagusituko dira Azpeitian bi egunez.

Inoiz baino ozenago entzungo

dira danborrak eta barrikak aurtengoan; izan ere, bi urteko etenaldiaren ondoren, festak ospatzeko gogoz daude azpeitiarrak.

2020ko edizioan bezala, helduen danborradaren desfilea Olazko Andre Mariaren plazaren ondotik abiatuko da, 22:00etan, eta parte hartuko duten 30 taldeak honako hurrenkera honetan

ibiliko dira kalez kale Alde Zaharrean: Oñatzbideko gastadoreak, Irrintzi, Txalintxo, Arauntza, Sanjuandegi, Izarraitx Txoko, Zokoa, Basazabal, Ziripot, Landeta Egizale, Alkartasuna, Ollagorria, Loiolabide Zahar, Zulozabal, Loiolatxo, Itsasi, Harkaitza, Etxera, Arrantzaleak, Gure Ametsa, Ardozaleak, Iraurgi Saskibaloia,

Mendizaleak, Barratsu, Zezenzaleak, Barrenetxea, Ilunpe, Inpernue, Izarraitxpe eta Oilo-Soro. Guztira, 1.500 herritar baino gehiagok parte hartuko dute desfilean, 30 taldetan banatuta.

Goikokalen eta plazan behera, Done Jakue kaletik iritsiko dira taldeak parrokiara eta Perez Arregi plazara, eta bi toki horietan kokatuta joko dute aurreneko aldiz *San Sebastian martxa*. Gaueko lehen geldialdiaren ondotik, Elizkalea eta Enparan kalea pasatu eta Perez Arregitik Erdikalean gora igoko dira plazaraino. Talde guztiak plazan direla eta gauerdiko kanpaiekin batera igoko dute herriko bandera udaletxeko balkoi nagusian.

Jarraian iritsiko da gaueko unerik berezietako bat. Ardozaleak taldeak 50. urteurrena bete zuen pandemia garaian, eta azken urteetan danborradarik egin ez denez, aurtun jasoko du omenaldia

udaletxean. «50 urte baino gehiago bete ditu taldeak dagoneko, pandemia dela eta atzeratu egin baita ospakizuna, baina polita izango da omenaldia jasotzea. Gauza handia da horrenbeste urtez festan parte hartzea, eta taldekide guztiok oso gustura gaude. Ondo pasatzea da aurtengo asmo bakarra. Beti helburu horrekin ateratzen garen arren, aurtun ospakizunetarako arrazoi gehiago ditugu», azaldu du Ardozaleak taldeko Juan Jose Azpeitiak.

Berrikuntza

Aurtengo berrikuntzetako bat omenaldiaren ondoren izango da. Izan ere, gauerdiaren ondoren plazan joko diren abesti guztien artean, lehenbizikoz entzun ahal izango da Pantxoa eta Peio taldearen *Batasuna* pieza. Hainbat urtez kanta hori jotzea proposamenen artean izan ondoren, aurtun entzun ahal izango da aurreneko



Iritzia
Itziar Agirre

Barrenetxea taldeko kidea

Ondo pasatu!

Danborrada Azpeitiko festarik garrantzitsuen eta ederrena iruditzen zait. Barru-barrutik bizitzen eta sentitzen dudana festa dela esan dezaket.

2000. urtean hasi nintzen sansebastianetako danborradan parte hartzen. Hala ere, hasierak ez ziren errazak izan; izan ere, esan ziguten emakume izateagatik ezin genuela sartu plazara danborra jotzera. Ordutik Julian Barrenetxea abesbatzaren taldean jarraitzen dut, eta urtero-urtero jotzen dut danborra, hutsik egin gabe.

Nire bizitza osoko ilusioa izan da Azpeitiko danborradan parte

hartu ahal izatea, eta, beraz, horretarako lehenbiziko aukera izan nuenean, ez nuen bi aldiz pentsatu beharrik izan.

San Sebastian bezperan, gauerdia iristen denean eta plazan *San Sebastian martxa* jotzen dugunean, asko emozionatzen naiz, urte osoa egoten bainaiz une horren zain. Gainera, aukera izan dudana guztietan, parte hartu izan dut San Sebastian eguneko goizeko danborradan eta banderaren jaitsieran.

COVID-19ak eragindako pandemiak hainbat arazo eta eragozpen ekarri dizkigu, eta pena handia sentitu nuen azken bi urteetan danborradarik egin ez zelako, niretzat oso berezia izaten baita San Sebastian bezperako festa hori, azpeitiar askorentzat bezala.

Horregatik, danborradan irten nahi duten eta horretarako aukera duten azpeitiar guztiak festan parte hartzera animatu nahiko nituzke.

Eta ez nuke idatzi hau amaitu nahi ondorengo esan gabe: «Aupa sansebastianak! Ondo pasatu!».

«Plazan San Sebastian martxa jotzen dugunean asko emozionatzen naiz»

«Aukera izan dudana guztietan, parte hartu izan dut San Sebastian eguneko goizeko danborradan eta bandera jaitsieran»

aldiz plazan. Unai Frantsesena Udal Musika Bandaren zuzendaria egin ditu kantaren moldaketak, eta danborrekin zein barriekin joko dute doinu berria.

UKT'k zuzenean

San Sebastian bezperako helduen danborradaren zuzeneko eman-

kizuna egingo dute Urolako Komunikazio Taldeko hedabide diren Uztarriak, Erlo Telebistak eta Urola Kostako Hitzak.

Saioa 21:30 aldera hasiko da, eta Mireia Galarza eta Koldo Aldalur kazetari azpeitiarrek gidatuko dute. Bi aurkezleekin hizketan izango da hainbat gonbidatu be-

rezi; besteak beste, zuzeneko saioan parte hartuko dute Nagore Alkorta alkateak eta Mikel Odriozola Festa batzordeburuak nahiz Aitor Exposito umeen danborradako karrozaren diseinatzaileak. Danborrada zuzenean jarraitzeaz gain, erreportajeak ikusteko aukera izango dute ikusleek.

Datuak:

- 30 taldek parte hartuko dute San Sebastian bezperako danborradan; guztira, 1.500 herritar elkartuko dira.
- 22:00etan irtengo da helduen danborrada Olazko Andre Mariaren plazatik.
- Ardozaleak taldeak 50. urtemugako oroigarria jasoko du.
- Pieza berri bat joko dute estreinakoz helduen danbor festan.

BOGAN
SUKALDE ETA ALTZARIAK

Landeta Auzoa, Garmendipe, 7
20730 Azpeitia, Gipuzkoa.
Tel.943 811 747 . 690 65 11 26
www.bogansukaldeak.com
bogan@bogansukaldeak.com



ONDO PASATU

Festak!

Ditugun eskaintza bereziak
ikustera **ETORRI.**



Amenabar
ondo pasau sansebastianak!
 Eliz-kale 32 Azpeitia
 943 150697/685110703
 www.amenabardecoracion.com

arantxa haur jantziak
 jose de artetxe kalea, 11
 943-81 24 29
 20730 azpeitia gipuzkoa
ondo pasau sansebastianak!


aisialdi
 — GASTRO-TOKIA —
Ondo pasau sansebastianak!
 f aisialdi gastro-tokia ☎ 943 14 20 39

agirre
oparidenda
atera danbor hotsak!
 erdi kale, 1 • 943-81 13 25 • azpeitia

 **aseguruak / berrasmatzen**
ondo pasau sansebastianak!
Loiolako Ignazio Hiribidea, 13 behea
 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
 943-15 15 11 • 609 479 273
 cmazpiszu@agencia.axa-seguros.es

Oñatzbideko gastadoreak



Sorrera. Gastadoreak 1959an atera ziren lehen aldiz. Danbor taldea, berriz, 2012an irten zen aurreneko aldiz.

Janzkera. Frantziako militarren jantzia: galtza zuriak, urre koloreko galoidun jaka gorri-urdinak eta buruko beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Irrintzi



Sorrera. 1975. urtea.

Janzkera. Sukaldari jantzia: galtza laukidunak, jaka zuriak eta buruko eta zapi zuriak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Txalintxo



Sorrera. 1979. urtea.

Janzkera. Pilotari jantzia: galtza zuriak, kamiseta eta gerriko urdinak zein gorriak eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Arauntza



Sorrera. 1970. urtea.

Janzkera. Kosako jantzia: beroki gorriak, kamiseta zuriak eta buruko beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Sanjuandegi



Sorrera. 1992. urtea.

Janzkera. Karlista jantzia: galtza eta txapel gorriak, jaka berdeak eta motxila zuriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Izarraitz Txoko



Sorrera. 2007. urtea.

Janzkera. Txistulari jantzia: jaka, galtza, lepoko eta buruko beltzak; galtzerdi zuriak eta txaleko gorriak.

Danborra ala txapa. Danborra.



Zokoa



Sorrera. 1992. urtea.
Janzkera. The Royal Scots britainiar erregimenduaren traje militarra: galtza zuriak, jaka gorriak, eta polaina eta buruko beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Basazabal



Sorrera. 2008. urtea.
Janzkera. Sukaldari jantzia: marra zuridun galtza beltzak, jaka eta txapel zuriak zein aurreko mantal eta zapi beltzak.
Danborra ala txapa. Txapa.

Ziripot



Sorrera. 2008. urtea.
Janzkera. Mikelete jantzia: galtza eta jaka urdin ilunak, txaleko eta txapel gorriak eta zapi berdeak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Landeta-Egizale



Sorrera. 1966. urtea.
Janzkera. Baserritar jantzia: alkandora zuriak, txaleko granateak, galtza grisak eta txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Txapa.

Alkartasuna



Sorrera. 1967. urtea.
Janzkera. Eskoziar jantzia: Eskozian jai egun eta gertakari garrantzitsuak ospatzeko jantzen den trajea.
Danborra ala txapa. Danborra.

Ollagorra



Sorrera. 2011. urtea.
Janzkera. Tranpa jartzaile jantzia: jaka eta polaina marroiak, galtza beixak, txapel beltzak eta zapi gorriak.
Danborra ala txapa. Txapa.

biur@hotmail.es
Erdi Kalea z/g
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-15 18 09

biur
ondo pasau
sansebastianak!

ETXE ZVRI
TABERNA

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Perez Arregi Plaza - Azpeitia
943-02 68 56

DIART

enmarkazioa
margo akademia
arte eder eta eskola materiala

943-150949 - eliz kale 23 - AZPEITIA - diartdiego@hotmail.com

ERROTAUNDI
Okindegia

ondo pasau sansebastianak!

Euskal Herria Kalea, 34 • 943-81 61 79

REFORMAS EUGENIO

OFERTA

672 600 606
672 60 06 06 Eugenio

Ondo pasau sansebastianak!




INNOVA
HORTZ KLINIKA
Ondo pasau sansebastianak!
Jose Artetxe, 5 • 943-02 59 55 • 625 19 58 85

IRUR
URRE EROSKETA
Zilar erosketak
Bitxien konponketak
Erlojuen pilen aldatzea

Ondo pasau sansebastianak!
Loiolako Inazio Hiribidea 17 • Azpeitia • 943-15 08 32


korrale
taberna
Ondo pasau sansebastianak!
Erdi kalea 27, Azpeitia | 943-81 06 01

Donejakue kalea, 6 tel.: 943-81 18 24
20730 azpeitia (gipuzkoa)
orrazkerak
INAXITA
ile-apaindegia
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

ERAIKUNTZARAKO MATERIALEN SALMENTA
LOREO, S.L.
MAKINERIA IGOGAILUEN ALOKAERA
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Loiolabide Zahar



Sorrera. 2011. urtea.

Janzkera. Sukaldari jantzia: galtza beltzak, jaka horiak eta txapel nahiz aurreko mantal marradun hori-beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Zulozabal



Sorrera. 2011. urtea.

Janzkera. Beefeater zaintzaile jantzia: urrezko ukitudun galtza eta jaka gorriak eta galtzerdi zein txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Loiolatxo



Sorrera. 2011. urtea.

Janzkera. San Inazioren garaiko militarren eta zibilen jantziak: militarrek traje zuri-urdinak, zilarrezko kaskoak eta armadura eta polaina marroiak; zibilek traje more-berdeak eta txapel eta polaina marroiak.

Danborra ala txapa. Danborra eta txapa.

Itsasi



Sorrera. 1984. urtea.

Janzkera. Soldadu frantziarren (gizonak) eta urketarien (emakumeak) jantziak: soldaduek galtza zuriak, jaka berdeak eta txapel eta polaina beltzak; urketariak gona beltzak, blusa zuriak eta aurreko mantal eta zapi grisak.

Danborra ala txapa. Danborra eta txapa.

Harkaitza



Sorrera. 1979. urtea.

Janzkera. Husan soldaduen tronpeta jotzaileen jantziak: jaka horiak, kapa berdeak, galtza zuriak eta polaina zein txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Etxera



Sorrera. 1981. urtea.

Janzkera. Baserritar jantziak: emakumeek gona beltzak, blusa zuriak, marradun txalekoak, lepoko zapi berdeak eta buruko zuriak; gizonak marradun galtzak eta txalekoak, alkandora eta zapi zuriak, gerriko berdeak eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.



Arrantzaleak



Sorrera. 1969. urtea.

Janzkera. Arrantzale jantzia: eurrirako horiak, alkandora eta galtza urdinak, arrantzaleen lepoak eta katiuska zein txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Gure Ametsa



Sorrera. 1966. urtea.

Janzkera. Sukaldari jantzia: jaka eta txapel zuriak eta galtza eta zapi grisak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Ardozaleak



Sorrera. 1971. urtea.

Janzkera. Napoleoi jantzia: jaka gorriak, galtza zuriak eta txapel eta polaina beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Iraurgi SB



Sorrera. 2017. urtea.

Janzkera. Sukaldari jantzia: galtza eta zapi zuriak, jaka granateak eta aurreko mantal zein txapel marradun zuri-granateak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Mendizaleak



Sorrera. 1974. urtea.

Janzkera. Tirolidar jantzia: blusa eta galtzerdi zuriak, galtza motz eta txapel beltzak zein tirante gorriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Barratsu



Sorrera. 1981. urtea.

Janzkera. Antzinako meatzari jantzia: artilezko galtzerdiak, galtza motz eta abarka beltzak nahiz alkandora, gerriko eta txapel berdeak eta txaleko laranjak.

Danborra ala txapa. Danborra.

ELIZ K/ 38, AZPEITIA
TEL./WAPP.: + 34 855 74 8140
NINAIZYOGA@GMAIL.COM
WWW.NINAIZYOGA.COM

ninaiz
yoga zentroa

Arimaren, buruaren eta
gorputzaren arteko oreka

GOZATU SANSEBASTIANEZI!

TOPA

ondo pasau
sansebastianak!

Erdikale 28 • 943-81 11 67 • AZPEITIA

NKN

mutil modie

Ondo pasau sansebastianak!

Damaso Azkue plaza, 7 | Azpeitia
943-08 05 24

ondo pasau
sansebastianak!

Tindategia
Sagarna

• Berezitasuna lehorreko garbiketan
• Nordikoak, mantak, edredoiak eta qortinen garbiketa berezia

Ildefonso Gurrutxaga, 3 • tel.: 943-02 66 81

zuhatz

taberna tel.: 943-15 16 34 • azpeitia

ondo pasau
sansebastianak!



ZURICH
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

GOIKO KALEA 5 BEHEA • AZPEITIA • 943-81 52 74

L. Xaxarki
ESTETIKA ZENTROA

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Elizkale, 44 • Tel: 943-81 19 32 • xaxarkiestetika@gmail.com



IZARRAITZ
HIGIEZINEN AHOLKULARIAK
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!



JOSTALDI
KIROLAK

ONDO
PASAU
JAIK!

Erdi kalea 15 • 943-81 46 23 - Euskalerria, 33 • 943-15 16 39
www.jostaldikirolak.com

L4U BIDE

JATETXEA

ondo pasau
sansebastianak!

Landeta Hiribidea, 2 • Azpeitia • T. 943 81 68 78
www.laubidejatetxea.com

Zezenzaleak



Julian Barrenetxea



Ilunpe



Inpernue



Izarraitzpe



Oilo-Soro



Sorrera. 1967. urtea.

Janzkera. Landetako euskal toreatzaile jantzia: galtza zuriak, jaka urdin ilunak, alkdandora zuriak eta txapel eta gorbata gorriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Sorrera. 2002. urtea.

Janzkera. XVIII. mendeko musikari jantzia: galtza motz beltzak, galtzerdi zuriak, jaka laranjak, hautseztatutako ileordeak, txapel beltzak eta parpaoladun blusak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Sorrera. 2020. urtea.

Janzkera. Zuberoako maskaradako jantzia: galtza motz beltzak, galtzerdi zuriak, jaka gorriak eta zuriak zein txapel gorriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Sorrera. 2020. urtea.

Janzkera. Gipuzkoako tertzioko jantzia: pasamaneria gorridun eta urrezko haridun jaka urdin ilunak, galtzerdi urdinak eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Sorrera. 2020. urtea.

Janzkera. Urolako treneko langileen jantzia: galtza zuriak, erre-mate gorridun jaka beltzak eta txapel gorri-beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Sorrera. 2004. urtea.

Janzkera. Nafarroako Erriberako artzainen jantzia: galtza beixak eta grixak, galtzerdi zuriak, txaleko urdin ilunak, alkandora beixak eta buruko zapi gorriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

50
1973
2023
BieleGroup



Ondo pasau sansebastianak!

**50 URTEZ UROLA BAILARAN
ELKARREKIN HAZIZ**

BieleBUILDING

BieleMETAL

BieleWOOD

BieleAUTOMOTIVE

Bulego nagusia

Larrañaga Industrialdea, 1 · 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa (España)

Tel.: +34 943 15 70 50

biele@biele.com

www.biele.com



Irteera



Danbor taldeen irteera hurrenkera:

- 1.- Gastadoreak
- 2.- Irrintzi
- 3.- Txalintxo


- 4.- Arauntza
- 5.- Sanjuandegi
- 6.- Izarraitz Txoko
- 7.- Zokoa
- 8.- Basazabal
- 9.- Ziripot
- 10.- Landeta-Egizale

- 11.- Alkartasuna
- 12.- Ollagorra
- 13.- Loiolabide Zahar
- 14.- Zulozabal
- 15.- Loiolatxo
- 16.- Itsasi
- 17.- Harkaitza

- 18.- Etxera
- 19.- Arrantzaleak
- 20.- Gure Ametsa
- 21.- Ardozaleak
- 22.- Iraurgi SB
- 23.- Mendizaleak
- 24.- Barratsu

- 25.- Zezenzaleak
- 26.- Barrenetxea
- 27.- Ilunpe
- 28.- Inpernue
- 29.- Izarraitzpe
- 30.- Oilo-Soro


Parrokian





Herriko plazan

UDALETXEA





Ardozaleak danbor taldeko kideak 2020an.



Ardozaleak danborzaleak ere badira

1971n atera zen Ardozaleak taldea lehen aldiz helduen danborradan. Urtemuga aurten ospatuko dute, bi urte beranduago, baina gogo biziz.

Azpeitiko helduen lehen danborrada 1959an egin zen. Handik 12 urtera, 1971n, atera zen Ardozaleak taldea lehen aldiz San Sebastian bezperako danborradan. 2021 urtean, 50. urteurrena bete zuen napoleoi jantzia erabiltzen duen taldeak. Pandemiak eraginda, ordea, taldeak ezin izan du urtemuga lehenago ospatu, eta atzerapenarekin bada ere, San Sebastian bezperan jasoko du Azpeitiko Udalaren omenaldia.

Urteurren borobila aitzakia berezia izan da taldekideak oroitzapenetan murgiltzeko. Atzera begira jarrita, danborradan irteten hastea ez zela gauza erraza izan aitortu du Iñaki Portillak: «Kuadrillakoei danborradan irten nahi genuen, baina horretarako, beste hainbat ekitaldi antolatzen lagundu beharko genuela esan ziguten». Hala, umeentzako jolasak prestatu zituzten, jaialdietan aurkezle lanak egin ere bai... Eta horrela lortu zuten danborradan irteteko baimena.

Lagun taldea dirua biltzen hasi zen, eta Eperra taberna ordezkatzuz irten ziren lehenbizikoz danborradan; Ardozaleak elkarteak sortu gabe zegoen oraindik. «Arrantzalez jantzita

irten ginen lehen aldi hartan, baina ordurako Ardozaleak genuen izena, Legazpin jokatu eta irabazi genuen txapelketa bat tarteko», esan du barrez.

Portilla Ardozaleen taldeko kide den arren, ez da soziedadeko bazkidea. Hala ere, danbor festan ez du hutsik egiten, eta aurten ere aterako dela adierazi du.

Ardozaleak lehen aldiz atera zenetik 50 urte joan dira, eta danborradak eta taldeak bilakaera ikaragarria izan dute. Hasierako danborrada haietan hamar talde ateratzen zirela oroitu du Martxial Elorzak: «Izugarrizko aldea dago egungo talde kopuruarekin alderatuta; asko hazi da festa. Taldea ere aldatzen joan da, gazteak batzen joan diren heinean».

Aldaketa nagusia, ordea, emakumeen presentziak eragin zuen taldean. Askok kostatu arren, gaur egun emakume ugari parte hartzen dute Ardozaleen taldean. Kizkitza Lasa da horietako bat: «Niretzat berezia da danborradan irtetea; txikitatik naiz elkartekoa, eta horrek ematen dio hunkibertasun puntua. Gainera, gogoratzen dut txikitik danborrada Erdikalean bizi zen amamaren etxetik ikusten nuela. Orain, danborradan handik igarotzen garenera begiratzen dut amonaren etxea zen hartako leiho-

ra. Txikitako oroitzapenak etortzen zaizkit; une polita izaten da».

Berezia izango da, era berean, San Sebastian bezperan Ardozaleak taldeak jasoko duen omenaldia: udaletxera igotzeko prest da Juan Jose Azpeitia taldearen zuzendaria. Hark aurreratu duenez, gainera, aurtengoa zuzendari gisa ariko den azkenengo aldia izango da: «Gazteei erreleboa pasatzeko garaia iritsi zait; 50 urte asko dira. Hala ere, urteak azkarregi pasatu direla esan beharra daukat».

Goizekoa, berezia

Ardozaleak taldeak hitzordu berezi bat izan ohi du sansebastianetan. Izan ere, San Sebastian egunean kalejira egiten du goizean, Gure Ametsa elkartearekin batera, eta, gero, parrokiari aritzen dira bi taldeak.

Goizeko ekitaldian parte hartu izan duten kide guztien esanetan, sansebastianetako unerik hunkigarrienetakoa da parrokiakoa. Hala dio Lasak ere: «Han entzuten den hotsa izugarria da; behin behintzat, probatu beharrekoa da». Elorzaren arabera ere, goizekoa da festetako une ederrena: «Sansebastianak urteko festarik ederrenak dira niretzat, oso politak dira. Ahal dudun bitartean parte hartzen jarraituko dut».



Zergatik etortzen zara sansebastianetan Azpeitira?

Beatriz Zubeldia



«Emozio handia sentiarazten dit danborradak. Ikaragarria izaten da gauerdiko plazako unea»

Zumaian bizi da Beatriz Zubeldia azpeitiarra, eta urtero etortzen da Azpeitira San Sebastian bezperako danborradan parte hartzera.

Danborrada aurreko afariak goiz izan ohi diren arren, Zubeldiak ez du arazorik izaten garaiz iristeko. «Lanean daukadan ordutegiarekin, ez dut afaritara ordurako iristeko arazorik izaten. Normalean, 18:00 alderako Azpeitira joan ohi naiz, gauerako arropak

janzten ditut, eta denbora ematen baldin badit, afal aurretik zerbait hartzera joaten naiz», azaldu du.

«Betidanik» Alkartasuna taldearekin ateratzen da danborradan. «Txikia nintzela, banderadun txiki gisa atera nintzen taldearekin, eta gaztetan, berriz, banderadun izan nintzen. Danborra jotzen, aldiz, aitaren erreleboa hartu nuenetik ateratzen naiz», jakinarazi du. 15 urte dira danbo-

rra jotzen irteten hasi zenetik, nahiz eta azken bi urteetan ez den egin festarik.

Sansebastianak eta bezperako danborrada oso bereziak dira Zubeldiarentzat: «Emozio handia sentiarazten dit danborradak. Ikaragarria izaten da gauerdian plazan kanpaihotsak hasten diren unea. Astelehen Karnabaleko egunak irabazten dio danborradari, agian, baina... Oso gustukoa dut danborrada».

Alex Artzelus



«Plaza leporaino beteta dela, kolore guzti horiekin ikusteak eta une hori bizitzeak, ez du preziorik»

«Apur bat nomada» dela onartzen duen arren, «astean zehar, behintzat» Gasteizen bizi da Alex Artzelus, eta azken urteetan, urtarrilaren 19ro, handik etortzen da Azpeitira. Etxera taldetik ateratzen da azpeitiarra danborradan, eta 19 edo 20 urte zituenetik, gai-

nera, banderadun izateko arduraduna da. «Esaten duten ordurako egoten naiz Azpeitian, txintxo-txintxo, afaldu eta danborradan irteteko prest. Etxera taldeko bandera eramaten dut, eta azpeitiarrak nitaz nazkatu arte, horretan jarraitzeko asmoa daukat», adie-

razi du Artzelusek barre artean.

Sansebastianak oso gustuko ditu Artzelusek. «Txikitatik bizi izanak, musikak... eta beste guztiak» eragin dio hari herriko jai horiek gustukoak izatea: «Txikitatik barneratu dugun zerbait da; danborrada

ikusitako dugu, Ikastolako entseguetan parte hartu dugu, musika bera eta jantziak oso dotoreak eta handikiak dira, eta hori dena betidanik gustatu izan zait niri».

Gainera, banderadun izateak are bereziago egiten du Artzelusen esperientzia; izan ere,

udaletxeko balkoira igotzeko aukera izaten du: «Plaza leporaino beteta dela, kolore guzti horiekin ikusteak eta une hori bizitzeak, ez du preziorik. Ez naiz guztiz azpeitiarra sentitzen, Bergaran jaiotakoa naizelako, baina asko betetzen nauen festa da».



Irene Larrañaga



«Hutsik egiten ez dudan herriko festa bakarrak dira. Azpeitiko jai parte hartzaileenak dira sansebastianak»

Irene Larrañaga Donostian bizi da, eta Gipuzkoako hiriburu-ko egun handia ere baden arren, San Sebastian bezperan ez du Azpeitiko hitzordura hutsik egiten. Julian Barrenetxea abesbatzaren taldearekin ateratzen da danborradan, duela 15 urtetik. «Unibertsitateko ikasketak hasi bitartean abesbatzan kantatzen nuen, eta danbor taldea sortu zutenean, jantzia uzten zidaten parte hartu ahal izateko. Urte batean, ordea, ez zegoen jantzirik libre, eta ezin izan nuen irten.

Hori gehiago gerta ez zedin, jantzia egin egin nuen, eta ordutik, urtero ateratzen naiz», adierazi du Larrañagak.

San Sebastian bezperako afarira iristeko arazorik ez du izaten gaur egun Larrañagak, baina gogoan ditu EITBn lan egiten zuen urteak. «Urte batzuetan, larri iritsi izan nintzen afarira, eskerrak jatekoa gorde egiten zidaten! Gainera, izebak ere talde berean jotzen zuen, eta bere ondoan gorde-tzen zidan afaritarako tokia», gogoratu du.

Danborra jotzea izan da Larrañagak beti izan duen ilusioa, eta, horregatik, pandemiako bi urteak kenduta, aukera izan duen guztietan parte hartzen du danborradan. «Hutsik egiten ez dudan herriko festa bakarrak dira. Azpeitiko jai parte hartzaileenak dira sansebastianak, eta parte hartzeko errazenak ere bai; gainerakoak mugatuagoak dira zentzu horretan. Danborradan ateraz gero, festaren parte sentitzen zara, eta hori oso garrantzitsua da», esan du.

Iosu Odriozola 'Ponpi'



«Aurten izango naiz, eta hurrengo urtera begira, hamabi hilabete izango ditut zer egin pentsatzeko»

Iosu Odriozola Ponpi landetarrak 40 urte baino gehiago daramatza Zarautzen bizitzen, eta urtero-urtero egiten du Zarautz eta Azpeitia arteko bi-dea San Sebastian bezperan. Landeta-Egizale talde-tik atera izan da beti danborradan: «Baserri-tar blusa normal bat era-


biltzen genuen hastapenetan, eta, gero, jantzia berritu genuen; gaur egun soinean izaten dugun txalekoa erabiltzen hasi ginen, 2005 urtean edo».

Erretiroa hartuta badago ere, lan egiten zuen sasoian ere ez zuen arazorik izan bezperako afarira joateko. «Jai eskatu

behar bazen, jai eskatu eta Azpeitira joaten ginen anaia eta biok, hura ere Zarautzen bizi zen eta. Urte askotan, gainera, umeen danborradako karroza eramane behar izaten genuen elkarteko kideok, eta egun hori ere jai hartutakoak gara askotan», esan du Odriozolak.

Sansebastianak asko gozatu-takoa da Odriozola: «Danborrada ikaragarria da. Sortzen den giroa ezin da hitzez adierazi. Gaztetatik bizi izan dut emozioz». Danborradan irteten noiz arte jarraituko duen galdetuta, ez du erantzun zehatzik eman. «Ikusiko dugu. Nire

adineko kide denek utzi diote ateratzeari, bakarrik utzi naute. Baina aurten izango naiz, eta hurrengo urtera begira, hamabi hilabete izango ditut zer egin pentsatzeko. Gainera, gazteak ilaran bultzaka izango ditu, beharbada, eta...», dio barez.



JARRAITU SANSEBASTIANAK 2023

UZTARRIA.EUS-en

BERTAN DUZU FESTARI LOTUTAKO INFORMAZIO GUZTIA



SANSEBASTIANAK
2023
azpeitia

ZENBAT DAKIZU SANSEBASTIANEZ?

Erantzun galderak eta
irabazi Kontxi arrandegiko otarrea.
Urtarrilaren 20ra arte
duzu parte hartzeko aukera.





Danbor hotsen aurreko afariak

Katerin zerbitzuen kontratazioa ugaritzen ari den arren, badira danborrada aurreko afaria batzordeko kideek kozinatzen jarraitzen duten soziedadeak, Harkaitza eta Oilo-Soro, adibidez.

Sansebastian festeko helduen danborradarekin egiten dute eztanda. Arropak, barrikak, danborrak eta atabalak prestatu, poteoa egin, eta afaltzera, 22:00etarako denak ilaran egoteko.

Baina batzuk lasai ibili ahal izateko, beste batzuek lana egin behar izaten dute; soziedadeen ka-

suan, adibidez, uneko batzordean parte hartzen duten kideek. Azken urteetan ugaritu egin da katerin zerbitzua kontratatzea erabaki duten taldeen kopurua. Dena den, oraindik badira batzordekideek afaria prestatzen jarraitzen duten elkarteak: Harkaitza eta Oilo-Soro, adibidez.

Mikel Ibarzabal Harkaitza elkarte kide da, eta aurten batzordekide izatea egokitu zaio.

«Banderaren jaitsieran atera nahi duten danbor jotzaileentzat ere afaria jarriko dugu: baratzuri zopa eta saiheskia»

«Egun berezia izaten da, eta ziur nago batzordeko zortzi kideok aterako garela ondoren danborradan»

Hori dela eta, San Sebastian bezperako afaria prestatu beharko du, batzordeko gainerako kideekin batera. Abendutik ari dira aste-oro bilerak egiten, eta urtarrilaren hasieran erabaki zuten afarirako menua: hasierakoak, legatza, azpizuna piperrekin eta pastelak.

«Danbor jotzaileak soziedade-
ra etorri aurretik izan behar dugu dena prest. 19:00etan hasiko gara afaltzen, eta 22:00etarako denok prest izango gara; denerako astia ematen du. Lana da, baina danborra jotzeko denbora ere izango dugu. Izugarri gogotsu nago gainera», esan du Ibarzabalek.

Afari batekin nahikoa ez, eta Harkaitza taldea banderaren jaitsieran ere izango denez, San Sebastian egunez ere prestatuko dute afaria batzordekideek. «Banderaren jaitsieran aterako direnetzat afaria ere jarriko dugu; ohiturari jarraituz, baratzuri zopa eta saiheskia izango dira afaltzeko», adierazi du Ibarzabalek.

Batzordearen esku

Oilo-Soro elkartearen ere batzordekideek prestatuko dute aurtengo

afaria. «Gure elkartearen batzorde bakoitzak erabakitzen du katerin zerbitzua erabili edo ez, eta guk afaria geuk prestatzea pentsatu dugu», azaldu du Aitor Berasategik. Egun osoko lana izango dutela aurreikusten dute, baina ondo antolatuta, egiteko denak gauzatzeko moduan izango direla uste dute. «Urtarrilaren 18an mahaiak prestatu eta elkartearen apaindiko dugu. 19an, berriz, goizean hasiko gara ahal dugun guztia aurerratzeko, saltsak, adibidez. Batzordeko zortzi kideok 17:00etarako elkartuko gara azken prestaketak egiteko».

19:00etan hasiko den afarira jotzen diren Oilo-Soroko danbor jotzaileek honako menu hau dastatuko dute: sarrerakoak, arrain zopa, bakailaoa saltsan, arkumea edo txuleta. «Eta ezin dute hutsik egin Egañaneko pastekek», esan du Berasategik. Otordua prestatzeak lan handia eskatzen badu ere, horrek ez dio danborra jotzeko gogoia kendu Berasategiri: «Egun berezia izaten da, eta ziur nago batzordeko zortzi kideok aterako garela ondoren danborradan».



Danborradako parte hartzaile hainbat afaltzeko prest Oilo-Soro elkartearen, 2020ko urtarrilaren 19an.



EITEN
ARROZTEGIA

Eman egurre danborrei!

685 75 35 09 • 943-15 01 53



Osagaiak?

- 4 legatz solomo, hezurrik gabe (200 gramokoak).
- 2 baratzuri ale, pikatuta.
- 5 koilarakada oliba olio.
- Perrexila xehatuta.
- 32 txirla handi.
- 24 kokotxa handi, zabalik eta hezurrik gabe.
- Litro laurden arrain salda edo ur.



LEGATZA SALTSAN TXIRLEKIN ETA KOKOTXEKIN

Prestaketa:

- Olio isuri kazola handi eta zabal batean. Baratzuri pikatua erantsi, eta segundo batzuetan oliotan eztitzen utzi «dantzari» hasi arte baina kolorea hartzen utzi gabe. Ondoren, arrain salda edo ura gehitu, eta minutu batez guztia irakiten jarri saltsak loditasun egokia har dezan.
- Legatz solomoei gatz eman, eta horiek saltsan jarri azala gorantz dutela. Legatz solomoak su eztian eduki lau bat minutuz, kazolari hara eta hona leunkiro eraginez. Arrain solomoei buelta eman espátula baten laguntzaz, eta pare bat minutuz utzi egiten. Garrantzitsua da arraina su eztian egitea eta kazola leun mugitzea.
- Kazola sutatik atera baino une batzuk lehenago sartu txirlak. Kazola tapatu, eta ireki ahal, atera txirlak -txirlaren bat ireki gabe geratzen bada, baztertu egin behar da-. Azkena atera ondoren, kokotxak sukaldoko paperarekin ondo igurtzi ur guztia kentzeko, eta ondoren, legatz solomoen gainean ipini horiek; gutxi gorabehera minutu bat eduki goxatzen, eta denbora horretan isurtzen duten gelatina baliatu saltsa loditzeko. Saltsak gustuko loditasuna duenean aurrez irekitako txirlak gehitu kazolarara. Gero, xehatutako perrexila zabaldu kazolan. Bukatzeko, kazola sutatik atera, hara eta hona mugitu saltsa, gatz puntua neurtu eta platerera!

PANTXINETA EPELA TXOKOLATE BEROAREKIN

Prestaketa:

- Lehenik krema egin behar da; izan ere, egun bat lehenago edota zortzi ordu lehenago egitea komeni da. Horren arrazoi nagusia zera da: hotz eta lodi egon behar duela.
- Krema egiten hasteko, esnari limoi azalak gehitu behar zaizkio, irakiten hasi arte. Behin irakiten hasita, sua itzali eta epeltzen utzi. Nahi izanez gero, kanela zotza edo banilla gehitu daiteke.
- Beste katilu batean arrautza irabiatua eta azukrea nahastu. Behin nahastuta, bi koilarakada arto irin eta esne hotz pixka bat gehitu. Arto irin koilarakadak eta esne hotza lehenago nahastu, eta gero, arrautza irabiatuari gehitu. Horiek sutan jarri gero, loditu arte -garrantzitsua da prozesu guztian zehar irabiatzea krema berdinduta eta koxkortxorik gabe geratzeko-. Denbora bat igarota, krema sutatik kendu, hozten utzi eta hozkailura sartu -garrantzitsua da hozkailuan sartzerako film paperarekin estaltzea-.
- Krema hozten utzi eta gero, hostorea egiteari ekin. Horretarako, irina gatz pixka batekin nahastu eta ura gehitu. Dena hamar bat minutuz oratu behar da -ez du oso itsaskorra geratu behar eta ahal den gutxien oratu behar da-, eta ondoren, legamia gehitu eta oratzen jarraitu bolatxo fin bat bihurtu arte. Trapu batekin estali eta 30 bat minutuz atseden hartzen utzi kanpoko tenperaturan.
- Ondoren, arrabolarekin hostorea zabaldu eta gurina gehitu goiko aldean. Gurina hostorearekin ezkutatu eta arrabolarekin hostorea zabaldu. Gurina oso likatsua baldin badago, hozkailuan sartu minutu batez. 30 minutu pasatu ondoren, hostorea hartu eta arrabolarekin luzatu. Behin luzatuta, oreari forma eman. Hostore xafiak arrautza irabiatuarekin margotu isipu baten bidez, eta labean 180 gradutan berotu. Guztia arrautza irabiatuarekin margotu, almendrak jarri eta labean sartu. Hamabost minutu igaro ondoren, hostorea labetik atera urre kolorea hartzen duenean. Gero, erditik zabaldu eta kremaz bete. Oso gomendagarria da gozoa txokolate bero pixka bat gainean duela aurkeztea plateran.

Osagaiak?

- 600 mililitro esne.
- Limoi azala.
- 2 gorringo.
- 50 gramo azukre.
- Bi koilarakada arto irin (30 gramo gutxi gorabehera).
- Almendra xafiak.
- Arrautza irabiatua.
- Kanela zotza.
- 125 gramo irin.
- 125 gramo arto irin.
- 25 gramo gurin.
- 25 gramo legami.



_ KONTXi _
ARRAINDEGIÀ



Ondo pasau sansebastianak!

Foru Ibilbidea, 4 • AZPEITIA • 943-81 19 46 • jonpescaderia@gmail.com



Udal Musika Bandako nahiz Gure Ametsako kideak eta hainbat herritar parrokiaren, San Sebastian egunean.

Goizez ere badira sansebastianak

San Sebastian egunean herriko kaleetan izango da zer ikusia eta zer egina. Azpeitiar gehienak oraindik lo dauden bitartean, meza eta prozesioa egiten dituzte hainbat herritarrek. Gainera, Gure Ametsa eta Ardozaleak taldeek, Udal Musika Bandarekin batera, danborrada berezia eskaintzen dute Soreasuko Sebastian Donearen parrokiaren barruan.

Azpeitiko biztanleriaren erdia baino gehiago lo da goen bitartean, San Sebastian egunez, goizean, mugimendua izan ohi da herriko kaleetan. Bezperako festaren beste aldea da, ezezagunena ziurrenik, baina herritar asko elkartzen dituen.

09:30ean hasita, Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeak kalejiran ibiltzen dira, Udal Musika Bandarekin eta musika eskolako txilibiteroekin. 10:15ean, udal ordezkariak plazan elkartu eta Soreasuko Sebastian Donearen parrokiara

joaten dira. Goizeko meza horren hasieran parte hartzen dute bi danbor taldeek; parrokiaren barruan danborrak eta barrikak jotzen dituzte kideek. Danborrada berezi hori bi konpainien San Sebastian jailetako unerik gogokoena bihurtu da. Eta bi taldeena ez ezik, hainbat herritarrena ere bai.

Bi urteko etenaren ondoren, berriro egingo dira aurtengo parrokiako danborrada eta elizkizun bereziak. 09:00etan Frantziskaretako elizan meza eskainiko du Kepa Susperregi erretoreak, eta 10:30ean, prozesioa egingo dute Alde Zaharrean. Parrokiara iristean, han izango dira Ardozaleak

«Une oso berezia eta polita izaten da danbor eta barrika hotsak parrokiaren barruan entzuten direna»

«Hamaiketakoak ere ematen dio indarra goizari. Parrokiako zarata eta mokadua, biak izaten dira politak»

eta Gure Ametsa elkarteetako zein musika bandako kideak. Horiak San Sebastian Martxa joko dute elizara sartzean.

«1997. urtea izango zen gutxi gorabehera. Patxi Aizpitarte eta biok iritsi berriak ginen Azpeitira. San Sebastian eguneko goiza zen, eta eguraldi oso txarra ari zuen. Parrokiako ateak zabaldu eta danbor jotzaileek kanpoko arkupeetatik joko zutela esan ziguten. Bi aldiz pentsatu gabe, barrura sartzeko eskatu nien, hoztu eta gaixotu egingo zirela eta». Hala gogoratu du Susperregik parrokiaren barruan danborrak jotzearen ekin zioten lehen aldi hura. Han-

dik hilabete gutxira, parrokiako liturgia batzordean danborrada eliza barruan urtero egiteko asmoa agertu zuten, eta harrezkero, hala egiten dute. Susperregiren esanetan, parrokiaren barruan danbor eta barrika hotsak entzuten direna «une oso berezia eta polita» izan ohi da.

Kepa Urbietak Gure Ametsako zuzendariak ere hala uste du, eta eliza barruan jo ostean egiten duten hamaiketakoak ere ekarri du gogora: «Hamaiketakoak ere ematen dio indarra goizari. Parrokiako danborradako zarata eta mokadua, biak izaten dira politak». Izan ere, bezperako danborradaren ondoren, «batik bat parranda eginez gero», goizean goiz jaikitzea ez dela erraza onartu du. Horregatik, parranda luzatzen zaienez gosari berezia prestatzea pentsatzen ari dira Gure Ametsako batzordekideak: «09:00etarako elkartzen gara kafea hartzeko eta prestatzeko. Aurtengo, salda edo baratxuri zopa prestatzea pentsatu dugu, baina ikusiko dugu, inoiz ez da egin halakorik eta...».

urbitarte
www.urbitarte.com
Eraikuntza eta Erreformak
Urola 6 20730 Azpeitia • 943 81 47 50
Ondo pasau sansebastianak!

IZAN IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

UZTARRIA

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia





Komunitatearen parte, festaren bidez

San Martin egoitzako egoiliarrek sansebastianetan murgilduko dira datozen egunetan. Bisitak izango dituzte, eta festa girorik ez da faltako.



San Martin egoitzako sansebastianetako hainbat une. UZTARRIA

Kalean nabaritu ohi da sansebastianak iritsi direla: bertako eta inguruko herrietako lagun ugari han-hemeka, megafo-
niatik entzuten den musika, saltokietako apaingarriak, balkoietan banderak... Baina bada festak ospatzeko beste modu bat ere; San Martin egoitzakoa, adibidez.

«Egoiliarrek komunitatearekin harremana manten dezaten» festa eta egun esanguratsu guztiak ospatzen dituzte San Martin egoitzan. «Azken urteetan, arreta pertsonarengan jarrita lan egiten saiatzen ari gara, eta halako jarduerak egitea egokia da egoiliarrentzat; horren barruan kokatzen da sansebastianak ospatzea», adierazi du Marian Mangas egoitzako psikologoak.

Sansebastianen bueltan, ekin-tza ugari egiten dituzte egoitzan. Festak hasi baino bizpahiru egun lehenago, herriko kaleetan eta

saltokietan egiten den bezala, zentroa apaintzen dute –koilarak, txapelak zein girlandak... jartzen dituzte eraikinaren barruan, eta kanpoaldean banderolak-. «Adinekoek, normalean, hormetan jarri behar diren apaingarriak itsasten laguntzen digute», gaineratu du Mangasek.

Era berean, giro handiagoa sortzeko, festetako musika jartzen dute: «Egoitzako solairu denetan jartzen dugu entzungai danborradako abestien diskoa. San Sebastian egunean, gainera, bazkari berezia prestatzen saiatzen gara». Horrez gain, bisita bereziak izaten dituzte egoiliarrek: hila-
ren 19an haurrak joaten dira egoitzara, egoiliarrekin pieza batzuk jotzera. Gero, egoitzako kideek danborrada egiten dute, eta arratsaldean, DBHko ikasleek egiten dute egoitzara bisita.

San Sebastian egunean ere jai giroan segitu ohi dute San Martin egoitzan. Hain zuzen ere, goizean goiz, Ardozaleak eta Gure Ametsa

taldeetako kideek egiten duten danborrada egoitzara joaten da, eta eraikinaren aurrean pare bat kanta jotzen dituzte bi talde horietako kideek.

Oroitzapenak

Horrelako ekintzek oroitzapen ugari ekartzen dizkiete egoiliarrei. Hala dio Mangasek: «Azpeitiarrak direnek gogotsu bizitzen dituzte festak. Orain egoitzan egon arren, urte gehienak kalean igarotakoak dira, eta urte horietako oroitzapenak izaten dituzte; sasoi batean, sansebastianak Elizari lotutako festak zirela gogoratzen dute, batik bat, eta danborradarik gabeko San Sebastian jaiak ere gogoan dituzte. Hala ere, gehienbat poztasunarekin lotzen dituzte festak. Gehientzat egun handia da San Sebastian eguna».

Azken urteetako ospakizunetan, pandemiak eraginda, aldatetarako egin behar izan dituzte, baina aurrerantzean normaltasunera itzultzea espero dute.

AUTOESKOLA UROLA PSIKOTEKNIKOA



Baimenak:

- AM
- A1
- A2
- A
- B
- B+E
- C
- C+E
- D



- CAP kurtsoak
- ADR kurtsoak



Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera

Gidabaimenak

- Armak
- Nautika
- Txakur arrakatsak
- Kirol ziurtagiriak



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

943-81 26 66 • Bustinzuriko Errebala, 3 atzea • urolaonline@hotmail.com 943-81 35 06 • Hartzubia, 31 behe • aurolapsikoteknikoa@outlook.com
AZPEITIA • www.urolaautoeskola.com

GUKA

ZERBITZUAK



08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera



Atari digitalak



Telebista

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

05



Webguneak eta
marketin
digitala

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

B

BALEIKE

K

KARKARA

erlo

ERLO

MAXIXATZEN

MAXIXATZEN

KH

UROLA KOSTAKO
HITZA

U

UZTARRIA

ZH

ZARAUZKO
HITZA



Zuri Beltz

Ondo pasau sansebastianak!

Olazko Amaren Plaza, 10 • 943-81 99 59
zuribeltz.aria@gmail.com | 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

OB

Ondo pasau sansebastianak!

Iberotarren plaza 7 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 05 09 • obaholularitza@ekonomiak.eus

GOZAU SANSEBASTIANAK!

E.G.A.N.A

GOIKO-KALE, 10 • 943-81 18 85 • LANDETA HIRIBIDEA, 19 • 943-81 50 09
www.eganagozotegia.com

GLUAL
HYDRAULICS

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Landeta hiribidea, 11 • Azpeitia • Tel.: +34 943 15 70 15
comercial@glual.com • export@glual.com
www.glual.com

J.B. San Sebastian Harategia

Tel.: 943-81 15 94 - Foru Ibilbidea, 4. AZPEITIA. www.jbsansebastianharategia.com
Bertako haragi eta urdaikiak. Etxean aurrez prestaturiko jakiak.

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

**Iritzia**

Nara Priya

Karmelo Etxegarai Ikastolako ikaslea

Festarik onenak

Azpeitiko festarik onenak dira niretzat sansebastianak. Familiako kide guztiok parte hartzen dugu elkarrekin, eta asko disfrutatzen dugu. Betidanik ikusi izan dut danborrada, bai helduena, baita umeena ere. Aurten izango da

Karmelo Etxegarai Ikastolatik kaleko danborradan irtengo naizen lehen aldia, eta gogo handia daukat; izan ere, asko itxarondako momentua izango da. Napoleoi jantzi gorriarekin aterako naiz, eta oso pozik nago. Gainera, entseguekin hasi gara dagoeneko.

Danborradan jotzen dugun kantarik gogokoena *San Sebastian martxa* da niretzat, hura izan baitzen jotzen ikasi nuen aurrenekoa. Gutxiena, berriz, *Txokoloren diana* gustatzen zait, azkarra delako oso eta zaila egiten zaidalako.

Danbor, barrika eta atabal txikien txanda da

500 bat umeren partaidetzarekin, 12:30ean abiatuko da danborrada Olazko Andre Mariaren plazatik. Alde Zaharrean barrena ibiliko dira parte hartzaileak eguerdia bitartean, eta karrozak itxiko du desfilea.

Pandemiak eragindako aldaketa guztiak atzean utziko ditu aurtengo umeen danborradak.

Izan ere, danbor jotzaile txikienek martxoan ospatu zuten iaz danborrada, osasun egoerak hobera egin zuenean; 2021ean, berriz, ez zen egin danborradarik.

Normaltasunera itzulera hori partaidetzan ere nabaritu da: hamar taldek osatuko dute aurtengo umeen danborrada. Hona-ko hauek dira talde horiek: Juan Antxieta musika eskola, Karmelo Etxegarai Bizkaiko tertzioak, Itsasi, Iraurgiko ezpatadunak, Ikasberriko sukaldariak, Karmelo Etxegarai napoleoi gorriak,

Iraurgiko Zumalakarregi taldea, Ikasberriko soldaduak, Iraurgiko mikeleteak eta Karmelo Etxegarai napoleoi urdinak. Guztira, 500 ume inguru izango dira aurtengo danborradan.

Danbor festa, ohiko ordutegiarekin, 12:30ean, hasiko da, Olazko Andre Mariaren plazatik; talde batzuk Arana kaletik eta Bustinzuriko Errebaletik jaitsiko dira hara, eta besteak, berriz, Artzubitik igoko dira. Ohiko legez, Arantatik abiatuko da karroza, eta hura arduratuko da desfilea ixteaz.

Azpeitiko Antzerki Topaketen 40. urteurrenari eskainitako karroza Aitor Expositok diseinatu du eta Ikasberri Ikastolako umeak joango dira haren gainean. Gainera, karrozaren atzetik inudez, mike-

letez eta abarrez jantzita desfilean irten nahi dutenek ere Aranera joan beharko dute.

Alde Zaharreko kaleak igaro ondoren, danborrada plazara iristean izango da omenaldiaren unea. Udalak Juan Antxieta musika eskolako kideak omenduko ditu udaletxeko areto nagusian, musika eskolak 40 urte beteko dituelako aurten.

Ez dira, ordea, eguneko danborhots bakarrak izango eguerdikoak; gauean banderaren jaitsiera ekitaldia izango da. Aurten, Gastadoreak, Zulozabal, Loiolatxo, Itsasi, Harkaitza eta Etxera taldeei egokitu zaie danborrada egitea, baina ostirala izanik, beste bi talde ere batuko dira festara: Basazabal eta Iraurgi SB.



Iritzia
Urritz Agirrezabal

Iraurgi Ikastetxeko ikaslea

Gogoz nago danborradan irteteko

Asko gustatzen zaizkit sansebastianak. Festa horiek gustuko ditut danborra jotzen dudalako; aurten, gainera, lehenengo aldiz aterako naiz danborra jotzen kalean.

Ezpatadunen taldearekin irtengo dut, lagunekin batera.

Denbora guztian eskuakin zerbait egin beharra sentitzen dut, eta danborra jotzen ondo sentitzen naiz, eskuak mugimenduan edukitzen

ditudalako. *San Sebastian martxa* da gehien gustatzen zaidan abestia.

Gogo handia daukat aurtengo San Sebastian eguneko danborradan parte hartzeko.



Ikasberri Ikastolako talde bateko hainbat haur iazko umeen danborradan.

IO
Iosu Optika
OPTIKA AUDIO

Ondo pasau
sansebastianak!

ERDI KALEA, BEHEA ZG • 943 15 12 91 • AZPEITIA



villegas larrea
arraindegia

943-81 68 91
Enparan, 29 • AZPEITIA

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**



Urbitearte, 4
AZPEITIA
943-81 03 08



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Loiolako Inazio Hiribidea 21, behea
943-81 69 76 • 645 00 50 65 • mima.denda@gmail.com
www.mima.eus • @mimadenda

JOXE RAMON

• harategia •

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!



Loiolabide 23 • Azpeitia • 943-8105 59 • 636 92 86 49

Tien21 ESNAOLA



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55
esnaeleh@outlook.com



Urbitate 3, behe
943-81 00 23
AZPEITIA



**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**



Julian Elorza Hiribidea, 3 behe
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 76 99
627 44 19 00
etxeaiz@hotmail.com

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Autokontrolera bideratutako proba sinpleak:
kolesterol (HDL/LDL)
trigliceridoak
az. urikoa
glukosa
kreatinina...

Azul-analizagailua dermo-aholkurako
Tentsio arteriala hartzea
Enkarguak zerbitzua
VH test azkarra
SPD-ak

FITOTERAPIA

DERMOFARMAZIA

HOMEOPATIA

ARTETXE-BASTIDA FARMAZIA

Urbitate, 3 - Azpeitia 943-81 10 49-658 69 98 88 artetxebastida@farmacia.com

Iturritxe de 2009/2010 65521 enpresak de

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

IRENE ALTUNA
LORADENDA

Lorola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ialtunadenda.com



34 • Umeen danborrada

UZTARRIA

Astelehena, 2023ko urtarrilaren 16a

Itsasi kultur taldea



Sorrera. 1984. urtea.

Janzkera. Soldadu frantziarren (mutilak) eta urketarien (neskak) jantziak: soldaduek galtza zuriak, jaka berdeak eta txapel eta polaina beltzak; urketariek koloretako gona luzeak, koloreetako zapiak zein blusa eta aurreko mantal zuriak.

Danborra ala txapa. Danborra eta txapa.

Juan Antxieta musika eskola



Sorrera. 2004. urtea.

Janzkera. Soldadu jantzia: jaka urdinak, galtza eta gerriko zuriak eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Iraurgi Ikastetxeko Zumalakarregi taldea



Sorrera. 1986. urtea.

Janzkera. Zumalakarregi jantzia: beroki grisak, galtza gorriak, gerriko eta lepoko beltzak, motxila zuriak eta txapel beixak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Iraurgi Ikastetxeko mikeleteak



Sorrera. 1986. urtea.

Janzkera. Mikelete jantzia: galtza eta txapel gorriak, esklabindun jaka urdinak eta gerriko beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Iraurgi Ikastetxeko ezpatadunak



Sorrera. 1986. urtea.

Janzkera. Galtza estu zuriak, solapa eta eskumutur gorri-dun jaka beltzak, txorrera zuriak zein polaina eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.



Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi gorriak



Sorrera. 1986. urtea.
Janzkera. Napoleoi jantzia: jaka gorriak, galtza zuriak eta txapel eta polaina beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Karmelo Etxegarai Ikastolako bizkaitarren tertzioak



Sorrera. 1986. urtea.
Janzkera. Bizkaitarren tertzioko jantzia: galtza zuriak; eskumutur, petxera nahiz lepo gorridun jaka urdin ilunak; koreaje zuriak; eta txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi urdinak



Sorrera. 1986. urtea.
Janzkera. Napoleoi jantzia: galtza zuriak, petxera urdin argidun jaka urdin iluna eta polaina nahiz txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Ikasberri Ikastolako sukaldariak



Sorrera. 1996. urtea.
Janzkera. Sukaldari jantzia: laukidun galtzak, jaka eta sukaldarien txapel zuriak eta zapi urdinak.
Danborra ala txapa. Txapa.

Ikasberri Ikastolako Gipuzkoako tertzioak



Sorrera. 1996. urtea.
Janzkera. Gipuzkoako tertzioko jantzia: pasamaneria gorridun eta urrezko haridun jaka urdin ilunak, galtzerdi urdinak eta txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

luba

AUTOEN TRANSFERENTZIA
FISKALA
KONTABLEA
FINKEN ADMINISTRAZIOA
GESTIO INMOBILIORIOA
GESTIO LANAK

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Enparan kalea, 45 AZPEITIA • Tel 943-15 75 25 • Faxa 943-15 72 75
ander@lubagestoria.com • lubapedro@gmail.com

EPI
kristaldegia

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK**

landeta
brikodenda

**ondo pasau
sansebastianak!**

Landeta hiribidea, 8 • Azpeitia • 943-81 25 66
www.landetabrikodenda.com

**ondo pasau
sansebastianak!**

B&R
Braserie

Landeta 1, AZPEITIA 943122573


• TABERNA •
BORDATXO

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**


Landeta Auzoa • 20730 AZPEITIA • 943-81 20 27



Irteera



Herriko plazan



Danbor taldeen irteera hurrenkera:

- 1.- Ikasberri Ikastolako sukaldariak.
- 2.- Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi gorriak.
- 3.- Iraurgi Ikastetxeko Zumalakarregi taldea.
- 4.- Ikasberri Ikastolako Gipuzkoako tertzioen taldea.
- 5.- Iraurgi Ikastetxeko mikeleteak.
- 6.- Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi urdinak.
- 7.- Juan Antxieta musika eskolako taldea.
- 8.- Karmelo Etxegarai Ikastolako Gipuzkoako tertzioen taldea.
- 9.- Itsasi taldea.
- 10.- Iraurgi Ikastetxeko ezpatadunak.

ikastola



Ondo pasatu sansebastianak!

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



Loiolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia • Tel.: 943 15 12 46
ikasberri@azpeitikoikastola.eus • www.azpeitikoikastola.eus





ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK

Landeta Hiribidea, 16 - AZPEITIA - 943 81 20 01



Plaza nagusia 11 • AZPEITIA • 688 68 86 96 • info@elikagunea.eus
www.elikagunea.eus



Bustinzuriko Errebala 16 • 943 815459 • 617 333127
@villegas_arraindegia_asier f villegas_arraindegia_asier



ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Euskal Herria Kalea, 33
943-08 00 89



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

info@egurtza.com
www.egurtza.com • 943-82 90 74 • Erdi Kalea, 21 • AZPEITIA

«Antzerkia, udazkena eta Azpeitia uztartzen ditu aurtengo karrozak»

AITOR EXPOSITO • Karrozaren diseinatzailea

Azpeitiko Antzerki Topaketan 40. urteurrena ardatz hartuta, umeen danborradako karroza diseinatu du Aitor Expositok. Karroza egiten duen bigarren aldia izanik, zeregina lasaiago hartu duela jakinarazi du.

Aitor Exposito (Azpeitia, 1994) arduratu da aurtengo sansebastianetako umeen danborradarako karrozaren diseinuaz, Azpeitiko Udaleko Festa batzordeak hala erabakita. Azpeitiko 40. Euskal Antzerki Topaketak da karrozaren gaia, eta San Sebastian egunean ikusi ahal izango da azpeitiarrak gai horren bueltan egindako lana. Ez da Expositok karroza egingo duen aurreneko aldia. Izan ere, 2019an ere hark irabazi zuen lehiaketa, eta hark egina izan zen, beraz, 2020ko sansebastianetako karroza.

Zer dela-eta animatu zinen umeen danborradako karroza diseinatzeko lehiaketan parte hartzera?

Ilusioa egiten didan zerbait da, zure lana ezagutarazteko aukera eskaintzen duelako. Aurrez ere banuen karroza egiten esperientzia -2020ko sansebastianetako ere berak egin zuen-, eta aurkezttera animatu nintzen. Ez nuen espero irabaztea, proposamen asko izango zirela uste bainuen. Dena den, sorpresa ona izan zen irabaztea nintzela jakitea.

Nolakoa izan da sormen prozesua? Gustukoa al duzu aurtengo gaia?

Marraztea asko gustatzen zait, eta ordu asko igaro ditut aurtengo gaiaren inguruko probak egiten. Gai polita iruditzen zitzaidan Antzerki Topaketena; izan ere, gustuko dut antzerkikira joatea eta topaketetarako egiten diren kartelak ikustea. Hala ere, Antzerki Topaketak gai zehatza diren arren, zaila egin zitzaidan ideia lantzea. Azkenean, antzerkia, udazkena eta Azpeitia uztartzen ditu aurtengo karrozak, eta gus-tura nago emaitzarekin.

Diseinuaz zertxobait gehiago aurreratzetik bai?

Ez, ez. San Sebastian egunean

ikusiko da azken emaitza. Denboraz ondo goaz; azken ukituak bakarrik falta zaizkigu.

2020ko esperientziaren ondoren, errazagoa egin al zaizu aurtengo prozesua?

Bai, duela hiru urte ez nekien ezer; ez nekien karroza guztia egurrarekin egiten al zen edo material gehiago erabiltzen al ziren, adibidez. Gremioek asko laguntzen dute, ordea, horiek urteetako esperientzia dutelako, eta horrek asko errazten du lana. Aurtan, hori jakinda, lasaiagoa eta errazagoa izan da prozesua.

Amsterdamen bizi zara. Nola moldatu zara dena koordinatu ahal izateko?

Gabonetan bi aste igaro nituen Azpeitian, eta orduan jarri nuen dena martxan. Horrez gain, familiakoek asko lagundu didate: jendearekin hitz egin behar bazen, arropen inguruko lanak egiterakoan... Aste honetan ere Azpeitian izango naiz karrozari azken ukituak egiteko.

Karroza egiterakoan zer iruditzen zaizu zailena?

Arropen kontua, adibidez, zaila egin zait. Ez nekien nondik hasi, baina historia irakurri eta dokumentuak ikusi ahala, ideia argitzen joan zait. Udalak gordeta zituen aurreko urteetako karrozetarako egindako arropak, eta horien artean aurkitu ditut aurtengorako balio dutenak.

Lan handia eskatzen du karroza egiteak, ezta?

Duela hiru urte lehiaketara ez nintzela gehiago aurkeztuko esan nuen. Dena den, ilusioak mugiarazten zaitu: zure lana erakusteko ilusioak irabazi egiten dio karroza egiteak eskatzen duen lanari eta sortzen duen estres guztiari.

Egun gutxi falta dira lana herrian erakusteko. Herritarrek zer esatea espero duzu?

«Marraztea asko gustatzen zait, eta ordu asko igaro ditut aurtengo gaiaren inguruko probak egiten»

«Zure lana erakusteko ilusioak irabazi egiten dio karroza egiteak eskatzen duen lanari eta sortzen duen estresari»

Karroza herritarren gustukoa izatea espero dut. Duela hiru urte kritika onak jaso nituen, eta ea aurtan ere hala gertatzen den.

Sansebastianak gustuko al dituzu? Nola bizi dituzu?

Oso gustuko ditut, eta ahalik eta gehien parte hartzen saiatzen naiz. Duela hiru urte Inpernue talde berriarekin ateratu nintzen danborra jotzen, eta jantzia behin soilik erabili dugunez, berriro iriteteko irrikaz nago. Horrez gain, sokamuturra ere gustatzen zait.

Aurtan ere, karroza egoki ateradadin, goizean goiz jaiki beharko duzu San Sebastian egunean, ezta?

Izango dut astia gaueko danborradaz eta ondorengo parrandaz zertxobait gozatzeko. Dena denboraz egoki eta erritmo onean dola ikusirik, lasai nago. Azken ukituak erreparatzeko gelditu beharko dut arotzarekin, baina festez gozatzeko parada ere izango dudala uste dut.

Azpeitiko festarik politenak al dira sansebastianak?

Politenak sansebastianak izango dira ziur aski, baina, karnabalak ditut nik gogokoen. Gainera, bi festa horietan ateratzen da karroza -Jai Karnabalean ere ateratzen da-, eta hori ere ondo iruditzen zait.



CENTERPOINT
ENGLISH ACADEMY

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

☎ 943-81 65 03 - www.centerpoint.eus

MOTX
ileapaindegia

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Eliz Kalea, 17 • AZPEITIA • 943-81 07 54

 **JATETXEA
LANDETA
SAGARDOTEGIA**

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Tel.: 943 81 09 59 • Landeta Auzoa, 12 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

ZUAR
kafetegi - okindegia


azpeitia

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Loiolako Inazio Hiribidea 79, behea
tel 943-53 20 42 • zuarazpeitia@gmail.com



G
GERTU
- Lurrindegia -

Erdikale Kalea, Z/G • AZPEITIA
943 81 43 58 • gertulurrindegia@gmail.com



Azpeitiko lehen danborrada, 1957an



Megafonia eta pantailak, prest



Helduen lehen danborrada, 1958an



Euriari aurre eginez



1957. urtean egin zen Azpeitian danborrada lehen aldiz. Ordudanik bilakaera izugarria izan du 24 orduko festak. Ezagutu nahi?

Handitzen handitzen

Azpeitiko lehen danborrada 1957ko urtarrilaren 19an egin zen. Zezilio Arabaolaza eta Baltasar Iglesias apaizek sustatutako festa egun hartan umek izan behar zuten protagonista, baina euriak dena zapuztu zuen.

Lehen saiakeraren emaitzak sortutako etsipena alde batera utzita, 1958ko San Sebastian egunean lortu zuten hel-

burua; egin zuten lehen danborrada. Urte hartan, helduen lehen karroza eta erregina atera ziren desfilean; Amparo Urdalleta izan zen erregina. Umeen lehen karroza, berriz, 1987. urtean egin zuten, eta Ainhoa Aranbarri, Izaskun Lizarralde, Nekane Gurrutxaga, Beñat Lopeategi, Ainhoa Aizpuru, Iñigo Odriozola eta Ekain Arregi haurrak atera ziren.

Urtez urte, danborradetan hobekuntzak egin dituzte eta partaidetza handitu egin da. Horren erakusle da egun 40 tal-

de ateratzea helduen nahiz umeen danborradan. Gainera, 1980. urtean megafonia sistema ezarri zuten desfilerako, eta goizeko danborrada ere orduan egin zen lehen aldiz.

Istorio eta irudi asko utzi ditu danborradak urtez urte. Gogoan al duzu Iñaki Regil Matxote banderadun ateratzen zen sasoi? 2005. urteko eurite hura? Eta nola ahaztu pandemiaren eraginez azken bi urteetan danborradarik egin ez izana?

Parrokia barruko danbor hotsak





Umeen lehen karroza, 1987an



Iñaki Regil 'Matxote', banderadun



Musika Banda, plazaren erdian





Amparo Urdalleta, lehen erregina



Balkoia, pandemia garaiko plaza



Helduen azken danborrada, 30 talderekin



Etixerako instalakuntzak |

Argiteria | Bainuak

Sukaldeak | Lokalak

atera txispak festei!

Izarraitz ouzoa, 66 | AZPEITIA
606 30 63 68 | axkiola@gmail.com



Inude eta mikelete txikiak



ALTUNA Y URIA



Loiola

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!



Festako beste osagai bat

San Sebastian egunez helduen bi sokamutur saio izango dira: eguerdian eta arratsaldean. Hilaren 22an, berriz, umeen sokamuturreko irteera eta zezen txikiak eta poniak izango dira eguerdian, eta helduen sokamuturra, arratsaldean.

Bi urteko gorabeherak alde batera utzita, ohiko formatuan iritsiko dira sansebastianak Azpeitia, eta ohiko moduan, zezenak izango du bere lekua festa horietan ere. Hain zuzen, bi egunetan izango da sokamuturra herrian: urtarrilaren 20an, San Sebastian egunez, eta igandean, hilaren 22an.

Ostiralean, San Sebastian egunean, 12:00etatik 13:00etara izango da lehen sokamuturra, eta ondoren, 16:30etik 20:00etara ere bai. Lopene ganadutegiko zezenak izango dira egun horretan soka.

Urtarrilaren 22an, berriz, umeen eta helduen sokamutur saio bana izango da. 12:00etan sokamuturraren irteera egingo dute haurrek eta gaztetxoek Erdikalean, eta ondoren, Lopene ganadutegiko zezen txikiak eta poniak izango dira plazan. Arratsaldean, berriz, helduen sokamuturra izango da, 16:30etik 20:00etara. Bergarako Zezenak ganadutegiko zezenak ariko dira arratsaldeko sokamuturrean.

San Sebastian egunean helduen bi sokamutur saio izango dira; hilaren 22an haurrei eta helduei zuzendutako bana



2020ko San Sebastian eguneko sokamuturraren irudi bat.





Egitaraua

Urtarrilak 19, osteguna

San Sebastian bezpera

22:00. Helduen danborrada, Olazko Andre Mariaren plazatik irtenda. 30 taldek parte hartuko dute aurtengo edizioan.

00:00. Talde guztiak plazan elkartuko dira, eta danborradako piezak joko dituzte. Gauerdian, gainera, Ardozaleek 50. urtemugako oroigarria jasoko dute udaletxean.

Urtarrilak 20, ostirala

San Sebastian eguna

09:00. Izarraitz txistulari taldeko

kideen eta Juan Antxieta musika eskolako ikasleen goiz eresia, kalez kale.

09:30. Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeek kalejira egingo dute plazatik hasita, eta Udal Musika Bandako musikariak eta Juan Antxieta musika eskolako txilibiteroak izango dituzte lagun.

10:15. Udal ordezkariak udal-txearen aurretik Soreasuko Sebastian Donearen parrokiara joango dira.

10:30. Prozesioa, Alde Zaharrean barrena.

10:45. Meza nagusia, Soreasuko Sebastian Donearen parrokian. Parrokiako eta Julian Barrene-txea abesbatzetako eta Azketa ahots taldeko kideek parte hartuko dute elizkizunean. Ignacio Arakistain arduratuko da elizkizunean organoa jotzeaz.

12:00. Sokamuturra, Erdikaletik

aterara, plazan. Lopene ganadute-giko zezenak izango dira.

12:30. Arana kaletik eta Artzubia hiribidetik aterata, umeen danborrada. Kalez kale ibiliko dira hamar taldeak, eta plazan bukatuko dute ekitaldia. Gainera, taldeak plazan direla, Juan Antxieta musika eskolako omenaldia jasoko du. Halaber, danbor taldeekin batera aterako da karroza. Aurtengoa Aitor Expositok egin du, Azpeitiko 40. Euskal Antzerki Topaketak gai hartuta.

16:30. Sokamuturra, Erdikalean hasita. 20:00etara bitartean ohiko ibilbidea egingo du sokamuturrak. Lopene ganadute-giko zezenak izango dira.

23:15. Bandera jaitsierako danborradaren hasiera. Bustinzuriko Errebaletik abiatuko dira jaitsieran parte hartuko duten taldeak (Gastadoreak, Zulozabal, Loiolatxo, Itsasi, Harkaitza, Etxera, Basazabal eta Iraurgi SB), eta Alde Zaharrean kalejira eginda, plazan bukatuko dute ibilbidea.

00:00. Banderaren jaitsiera plazan. Udal Musika Bandak joko ditu danborradako piezak, zuzenean.

Urtarrilak 21, zapatua

22:00. Willis Drummond, Ro eta Trini Fox musika taldeen kontzertuak Sanagustin kulturgunean. Emanaldietarako sarrerak Kulturaz kooperatibaren atari digitalean (Kulturaz.eus) eskura daitezke, hamahiru euroren trukean.

Urtarrilak 22, igandea

12:00. Zezen Beltzek antolatuta, sokako zezen txikia Erdikaletik plazara. Ondoren, Bergarako Zezenak ganadute-giko zezen txikiak eta poniak plazan.

16:30. Erdikalean hasita, sokamuturra; ohiko ibilbidea izango du 20:00etara bitartean. Bergarako Zezenak ganadute-giko zezenak izango dira.



16:30. Zinuema egitasmoaren barruan, *Go!azen* filmaren aurrestreinaldia izango da, Soreasu an-

tzokian. Emanaldirako sarrerak Soreasuko leihatilan erosi ahal izango dira.

AZPEITITIK IRTENDAKO TALDEKO BIDAIAK 2023



688821258 | halconv75@halconviajes.com | Halconviajes.com

HORTZEDER
H O R T Z K L I N I K A

Eliz kalea 23 | 943 816 668





Iritzia
Nagore Alkorta

Azpeitiko alkatea

Sansebastianak

Urte bukaera iritsi aurretik, herritarrek galdetzen hasiak ziren: «Zer Nagore, aurten bai, ezta? Sansebastianak ospatuko ditugu, ezta?». Eta nik gustura erantzun dut baietz, aurten badugulako festa horiek ospatzeko aukera.

Azken bi urteko geldialdiaren ostean, baietz esango diogu festak askatasunez bizitzeari; baietz, sentsibiltate nahiz bizipen desberdinetako herritarrek berriro ere gure herriko plazan bat egiteari. Urte gogorrek pasatu ditugu, eta etorriko direnak ere ez dira samurrak izango. Halere, horrek ez digu kenduko gure herriko festez goatzeko ilusioa. Berriro ere elkartuko gara danborradako entseguetan, txokoetan, ile-apaindegian eta antzekoetan. Guztiok egun seinalatua iristeko zain... Eta guztiok esatean, neure burua ere sartu egiten dut, neu ere urtarrilaren 19ko gaua iristeko desiratzen bainago. Herritarrek kaleetan barrena danbor hots artean ikusteko gogoz, irribarreak nonahi, eta gauerdian plazan noiz juntatuko zain. Bihotzaren taupadek topea joko didate, bai, gaueko hamabietan. Kanpai hots horiek entzutean gauza bera sentituko

dugu ehunka azpeitiarrek. Eta, bai, horrek ere egiten du herria: ilusioak, sentimenduak, batzen gaituzten soinuek.

Azken bi urte hauek, izan ere, eman digute bestelako kontuez pentsatzeko eta lanean aritzeko nahikoa buruhauste. Helduek nahiz haurrek ezin izan dute danborradan nahi bezala parte hartu. Eta orain iritsi zaigu gure unea. Haurrak ere prest dira beren danborradarako; danbor jotzaileak, karrozako protagonistak, kantinerak eta bestelakoak. Kolorea, kantua eta alaitasuna zabalduko dituzte gure herriko kaleetan.

Eta nostalgia puntu batekin, *Amamaren danborra* dokumentala etorri zait burura. Duela bi urte aurkeztutako lana, emakumeak danborradan lehen aldiz atera izana omentzea xede duen ikus-entzunezkoa. Eskerrak egindako lanari, eta eskerrak azpeitiar emakume ausart guzti haiei. Haiek gabe, emakumeak ez ginateke egongo gaur egun betetzen ditugun lekuetan, ez danborradan, ezta bizitzako beste hainbat esparrutan ere. Festak gure gizartearen isla dira, eta genero berdintasuna lortzeko lan handia egin den arren, asko dugu oraindik ere egiteko. Hori, baina,

«Sansebastianez goatzeko mezua zabaldu nahiko nuke: libreki baina errespetuz goatzeko esan»

«Urtarrilaren 19an herrian zein herritik kanpo izango zaretenoi: denok gogoan izango zaituztegu»

guztiok batera egingo dugu, jaietan zein egunerokoan.

Amaitzeko, sansebastianez goatzeko mezua zabaldu nahiko nuke. Aurretik aipatu bezala, libreki baina errespetuz goatzeko esan. Erakuts dezagun azpeitiarrok badakigula elkartasunez aritzen eta errespetuarekin bizitzen.

Eta, noski, eskerrak eman nahi dizkiet festa hauek egin ahal izateko lanean ari diren herriko eragile guztiei, danborradako batzordeko kideei eta jaietan lanean arituko diren herritarrei.

Eta besteok disfrutatu, gozatu festa handi hauez. Urtarrilaren 19an herrian zein herritik kanpo izango zareten azpeitiarroi: gauerdiko kanpaiekin, denok gogoan izango zaituztegu.

Aupa Azpeitia eta azpeitiarrak!

URTARRILAK 19

SAN SEBASTIAN BEZPERA



SAIO BEREZIA

Erreportajeak 21:30etik 22:15era
Zuzenekoa gonbidatuekin, 22:15etik 00:15era
uztarria.eus eta Erlo telebistan



SANSEBASTIANAK
2023
azpeitia

uztarria.eus